

# **Feto sira Turismo Komunitariu**

**Investigación Sobre las Mujeres en el Turismo Comunitario  
en Timor Este**

Egilea: Federica Carraro,  
Ekonomi Zientzietan lizentziatua,  
Universidad degli Studi di Venezia – Italia

Itzulpena euskarara  
Raquel Llamas Fernández  
Ibai Biain

Fotos: SODEPAZ

La maquetación de esta revista se ha realizado íntegramente con software libre.

## Editorial SODEPAZ

C/ La Palma, 69, Bajo.

28015 Madrid, España.

Tel.: 91 522 80 91 y 616 404 444

Fax: 91 532 30 29

E-mail: [sodepaz@sodepaz.org](mailto:sodepaz@sodepaz.org)

[www.sodepaz.org](http://www.sodepaz.org)



Atribución 2.0

Usted es libre de:

copiar, distribuir y comunicar públicamente la obra y hacer obras derivadas.

Bajo las condiciones siguientes:



**Reconocimiento** – Debe reconocer los créditos de la obra de la manera especificada por el autor o el licenciadador (pero no de una manera que sugiera que tiene su apoyo o apoyan el uso que hace de su obra)



**No comercial** – No puede utilizar esta obra para fines comerciales.

Al reutilizar o distribuir la obra, tiene que dejar bien claro los términos de la licencia de esta obra.

Alguna de estas condiciones puede no aplicarse si se obtiene el permiso del titular de los derechos de autor

**Los derechos derivados de usos legítimos u otras limitaciones no se ven afectados por lo anterior.**

© los autores.

Imprime: Arte4C

# Aurkibidea

<b>SARRERA.....</b>	<b>5</b>
<b>EKIALDEKO TIMOR, HAINBAT GENOZIDIOEN BIKTIMA.....</b>	<b>9</b>
<b>HERRIALDE POBREA.....</b>	<b>13</b>
<b>EMAKUMEAK EKIALDEKO TIMORREN.....</b>	<b>17</b>
<b>TURISMO SEKTOREA.....</b>	<b>25</b>
<b>KOMUNITATEEN ETA KOOPERATIVA NATURALEZA- REN DESKRIBAPENA: KANPO LANA.....</b>	<b>33</b>
<b>ONDORIOAK.....</b>	<b>51</b>
<b>1 ATXIKIA.....</b>	<b>55</b>
<b>2 ATXIKIA.....</b>	<b>59</b>
<b>BIBLIOGRAFIA.....</b>	<b>77</b>





## SARRERA

Lan hau Ahimata ba futuro, Reducción de la pobreza en Timor Este a través del Turismo de Base Comunitaria proiektuan parte hartzeko aurkeratik sortu da. Aukera CIDAC-ek eman zigun (Centro de Informação e Documentação Amílcar Cabral), Ekialdeko Timorren 30 urte baino gehiagoz aritu den gobernuz kanpoko erakunde portugesa.

Proiektu hau, GKE portugesak eta Haburas erakunde timortarrak aurrea eramandakoa, 2013ko martxoan bere hirugarren urtean aurkitzen zen, eta Europar Komisioko finantziakoa dauka.

Proiektuaren helburua turismo komunitarioaren arloko aktibitateak eratzea da, biodibertsitatea eta ondasun paisajistiko eta kulturala errespetatuko dutenak. Ondasun komun honek potentzial ekonomiko



indartsua du, eta honekin Ekialdeko Timorreko landako biztanleria ahulenaren errenta eta autonomia maila hobetzea aurreikusi da.

Proiektu haun aktibitate turistiko honetan aritzen diren komunitate guztiei zuzenduta dago. Turismo Komunitariorako instalazioak kudeatuko dituzten taldeak sexuaren arabera sailkatuta daude, ondorioz, interbentzioaren aurretik, hiru tokietan batz best %50 gizon eta emakume izanik.



Emakumeen taldea, hortaz, ez zen hasierako helburua, baina ezarri nahi dugun turismo mota deskribatzean, esaten da proiektuak "emakumeentzat aitzindaritzza eta autonomia ekonomikoa lortzeko bide zabala-go utzi" beharko lukeela.

SODEPAZen ekarpena Dili-n, Ekialdeko Timorreko hiriburuan, Turismo Arduratsuari buruzko hitzaldi bat izan zen, aktibitate turistikoan aritzen ziren tokiko komunitateetako kideei, gobernuko funtzionarioei eta **tokiko GKEei; gainera, helburuak lortzeko sor daitezken arazoak ikusteko prozesua eta nola konpondu neurriak proposatuz -ko barne ebaluazioan parte hartzeko.**

SODEPAZ CIDAC elkar lanean aritu da hainbat urtetan, eta Foro de Turismo Responsable-ko ko-fundatzailea eta kidea da. Azken hau estatu espainiarraren sarea da, 2004an hasi zena, 12tik gora erakunde biltzen ditu, eta 2012tik aurrera, gainera, TEN (Tourism European Network) eko kidea da.

FOCADaren 2011 "Turismo y Desarrollo: rompiendo Mitos, construyendo alternativas" proiekturako kofinantziarioari esker CIDACEk proposatutako eginkizunak gehitu ahal izan ditugu, konkretuki gure sentzibilizazio proiektuak aurreikusi dituenak, adibidez bideoerreportaia bat, eta modu oso orokor batean bere garapenaren lehenengo pausuetan dagoen egoera baten aldagarriak aztertu ahal izan ditugu, hau da, Turismo komunitarioan emakumeek betetzen ari diren errola.

Industria hau hazten ari da, hainbat erakunde sozial desberdinak hasten ari dira honetan lanean. Gobernuak berak industria hau sustatzeko borondate politikoa du. Industria honen definizioa eta bere funtzionamenduaren zati bat herrialdearen araudian biltzen da (Gobernuaren 2011-2030ko Garapen Nazionalerako Plan Estrategikoan, Garapen Ekonomikorako 4. kapituluak, turismoa lehentasun gisa ezartzen da, bereziki Turismo ekologiko eta kulturala. EDTA-k (Ekialdeko Timorreko Garapenerako Agentzia) 2012an bere lehen liburua argitaratu zuen hau turismoko langileentzat lehenengo gidaliburua izateko asmoz.

Dokumentu hau idazteko kanpo lana egin baino lehen, CIDACEk hainbat herrialdeko turismo komunitarioaren esperientzien garapenari buruzko hainbat informe eta analisi egin zituen, zeintzuk proiektu sustatu zituen, Davis Geraldine ebaluatzaile australiarraren bisita barne, zeinen informeak SODEPAZen lanaren gai-zerrenda prestatzeko balio izan zuen.

Hitzaldia, lau egun iraun zuena, SODEPAZek egindakoa, turismo komunitarioaren hainbat esperietzietan parte hartzen ari diren pertsonen zuzenduta zegoen, baita hauei, zeini "Ahimata ba futuro" proiektua zuen-



duta zegoen, eta Administrazio timortarreko langileei, unibertsitateei eta sektore honetan aritzen diren eta interesatuta dauden GKEei. 35 pertsona baino gehiago parte hartu zuten (atxikian lan talde desberdinen ondorioak atxikitzen dira).

Hitzaldia baino lehen, eta formakuntzan esku hartuko genuen errealitatea ezagutzeko kanpo lan gisa, Haburas erakundearekin batera, hiru tokiak bisitatu ziren, non turismo komunitariorako taldeek lan egiten duten. Talde hauek helburu honetarako instalazioak kudeatzen dituzte, eta data desberdinetan hasi ziren. Modu berean, turismo komunitariorako esperientzia osagarriak ere bisitatu ziren, Carabela erakundearen kasuan bezala, zeinek turismoari zuzendutako bi jantoki eta Moubara-n antolatutako emakume artisau talde bat kudeatzen dituen. Moubara toki turistiko garrantzitsu bat da, hiriburutik gertu kokatuta. Bonekas produkzio kooperatibako koordinatzailearekin elkarrizketa bat antolatu zen. Kooperatiba Atauro irlan dago, zentro turistiko nagusietako bat Dili-rekin batera.

Toki bakoitzeko hiru eguneko bisitetan, lan metodologia hurrengoak izan zen: bilera plenarioak antolatu taldeko edo kooperatibako kideekin, eta elkarrizketa pertsonalak emakume batzuei, bai talde barruan ardurak zituztenik, bai ardurarik ez zutenekin. Helburua pauso honetan kontontzen ari ziren arazo nagusien egoeraren analisi bat eratzea zen, lortutako abantaiak eta etorkizunerako aurreikuspenak. Gainera, emakumeek aktibitate turistiko honetan betetzen zuten errola ikusi nahi izan genuen, eguneroko bizitzan zein aldaketa bizi izan zituzten, eta ea aldaketa hauek haiek boterea eskuratzera lagundu zien.

Nazio batuen arabera (<http://www.unwomen.org>), eta "Emakumeek boterea eskuratzeko printzipioak" dioen bezala, ekonomia indartsuak sortzea eta garapen eta iraunkortasun helburuak lortu nahi badira, funtsezkoa da emakumei boterea ematea bizitza ekonomikoan parte har dezaten.

Printzipio hauek, NB Emakumeak eta Nazio Batuen Munduko Paktuak-en arkteko elkarlanaz sortuak, gizarte zibileko erakundeei laguntzeko diseinatuta daude, hain zuzen ezartzen dituzten politikak eta praktikak aztertzeko -edo berriak sortzeko- emakumeen botere-eskurapenaren arloan.

Modu laburrean, printzipioak hurrengoak dira:

- Sexu berdintasuna sustatzea zuzendaritza maila altuenera.



- Gizon eta emakume guztiak berdintasunez tratatzea lanean; giza eskubideak errespetatu eta defendatzea, eta diskriminazio eza.
- Langile guztien osasuna, segurtasuna eta ongizatea babestea.
- Emakumeen hezkuntza, formakuntza eta garapen profesionala sustatzea.
- Berdintasuna sustatzea inizatiba komunitarioen bidez.
- Sexu berdintasunaren alde egindako aurrerapenak ebaluatu eta hedatzea.

<b>Proiektuaren izenburua</b>	<b>“Ahimatan ba futuro . Ekialdeko Timorreko pobrezia txikitzea komunitatea oinarri duen turismoaren bidez”</b>
Interbentzio-tokia	Tutuala, Moubisse eta Moubarak komunitateak (Ekialdeko Timor)
Sektorea	Turismo komunitarioa
Finantziakoa	Europar Batasuna
Eragilea	Haburas fundazioa (Ekialdeko Timor)
Erakunde laguntzailea	CIDAC (Portugal)
Helburua	Ekialdeko Timorreko pobrezia txikitzen laguntzea, baliabide naturalen kudeaketa jasagarrian oinarritutako onurak sortzen dituzten aktibitateak sortzeko tokiko kapazitatea sustatuz





# **EKIALDEKO TIMOR, HAINBAT GENOZIDIOEN BIKTIMA.**

Ekitaldeko Timor, bere hiriburua Dili, Asiako Hego-Ekialdean dago, Darwin (Australia)-etik 640 kilometro ipar-ekialderantz, eta Timor irlaren ekialdeko zatia; ondoko Atauro eta Jako irlak; eta Oecussi-Ambeno, irlako beste erdian (Mendebaldeko Timor-en) kokatutako gune politikoa (Indonesiaren parte dena) biltzen ditu. Kontuan hartzekoa da kokapen geografiko hau, bai herrialdearen historia eta bai herri honen ibilbidea markatzen baititu.

Garrantzitsua da labor Timoren azkenaldiko historia kontatzea, herri honen jarraibide antropologikoak erakutsiko dizkigulako, eta komunitate honek bere identitatea eratzeko beharra ezagutu eta ulertzeko oinarriak emango dizkigulako. Horregatik, ibilbide historiko hau garai kolonial europarrarekin hasiko dugu. Timor irla kolonia europarra izan zen. Portugesak heldu ziren lehenak hain zuzen, egur bila. Beste kolonietan bezala, Europa zaharreko gertakariak ez ziren oharkabean igaro hemendik, eta beste metropolien arteko eraso eta aliantzen ondorioak honaino ere iritsi ziren. Modu honetan, Portugalek mendebaldeko zatia holandarren eskuetan galdu eta gero, Timor irla bitan banatuta geratu zen, gaur egun ezagutzen dugun moduan. Portugesak oraindik lau mende geratu ziren toki honetan, baina lurraldea ia bakarrik merkataritzarako erabili zuten, baliabide naturalak esplotatuz, kolonizazioan aurrerapen eskasa egiten.

Bigarren Mundu Gerra bitartean, Portugal neutral mantendu bazen ere, 1941eko abenduan Timor Australiako eta Holandako indarrek okupatu zuten, inbasio japoniar bat aurreikusi baitzuten. 1942ko otsailan Japoniak Timor okupatu zuen, erresistentzia gerrillen arteko guda baten estrategiarekin hasiz. Okupazio indar japoniarrek herri eta herrixkak suntsitu zituzten, eta elikagaien produkzioa eta banaketa kontrolatu zuten. Okupazio japoniarrak 40 000 - 70 000 timortar inguru hil zituen. Geroago irla Portugalek okupatu zuen berriz.

Portugalen Krabelinen Iraultza gertatu zenean, irlaren ekialdeko zatiak independente bihurtzea erabaki zuenean hain zuzen, FRETILIN (Ekialdeko Timorreko Independentziaren Aldeko Fronte Iraultzailea) errepublika independentea aldarrikatu zuen 1975eko azaroaren 28an.

Baina independentzia honen oinarriak ezegonkorrak eta hauskorrak ziren, FRETILIN beraren barruan ere Indonesiarekiko (irlaren mendebal-



deko zatiarekiko) integrazioaren aldeko alderdi bat baitzegoen. Honela, urte hartako abenduaren 7an indonesiaren okupazio militarra gertatu zen. Okupazio hau Amerikako Estatu Batuek, Australiak eta Zeelanda Berriak babestu zuten, nahiz eta Nazio Batuetako Seguritate Kontseiluak inbasio hau hainbat alditan gaitzetsi zuen zenbait erabakitan, non timortarren determinazio askatasunerako eskubidea aldarrikatzen zuen.



Indonesiaren inbasio militarren ondorioz Ekialdeko Timor Indonesiako 27. probintzia bihurtu zen. Okupazio honetan bultzatu zen joera nagusia genocidio humanitario eta kulturala izan zen. Ehunka herrixka suntsitu zituzten indonesiako armadaren bonbardeoek, erresistentziaren timortarren kontra NAPALM (gasolina likatsua) tonak eta bomba superagileak erabili baitziren. Produktu honen erabilerak herrialdeko basoen zati handia erre zuen, gerrilleroen babesa murriztuz tokiko landareta itxian. Lurralde osoan izugarriko errepresioa ezarri zuten. Herri errugabe bati eragindako basakeria hau orekatzeko, Indonesiako gobernuak bere irudia garbitu nahi izan zuen timortarren aurrean eta atzerriera begira, eta lurraldean laguntzen hasi zuen, garapen sozialerako programak bultzatuz, eskola eta ospitaleak eraiki eta konpontzeko programak, esaterako.

Okupazioaren garaian portugesa irakastea debekatu zen, eta indonesiarra hizkuntza ofizial ezartzen saiatu ziren. Ikasi ahal zuten timortarrek bakarrik Yakartan ikasi ahal zuen, murrizketa hau herriaren akulturazio estrategia bat izanik.



Indonesiaren okupazioak 25 urte iraun zuten, eta garai honetan eraiki zen Ekialdeko Timor nazia sortzeko proiektuaren kontzientziazio eta garapenerako mobilizazio nagusia. Bi indarrek osatzen zuten kanpotarren kontrako erresistentzia: Erresistentziaren Mugimendua eta Eliza Katolikoa. Bi indar hauek kanpoko laguntza eta ezagupen internazionala lortu zuten. Independentziaren aldeko sentimendu hau haziz joan zen, eta erreperkusio internazionala zuen edozein gertakari erabiltzen zuten munduaren aurrean azaltzeko eta haien egoera aldarrikatzeko. Mugimendu independentista guztiak eta erresistentziarenak zapalduak izan ziren ondorioak zirenak zirela. Horrela, independentzia lortzeko presioaren ondorioz, eta Asiar 1997. urtean heldu zen eta Indonesia harraipatu eta politikoki eta ekonomikoki ahultu zuen munduko krisi ekonomikoak Suharto-ren erregimen militar inbasorea hain gogor jo zuten, urte bat geroago uko egin zuela. Egoera politiko, sozial eta ekonomiko berri hau emanda, Porgual eta Indonesiako gobernuak lurraldearen independentziaren inguruko kontsulta popular bat negoziatzeko bildu ziren. Herritarrek mehatxu asko jasan zituzten, baina horrela ere botazioan parte hartu zuten, eta timortarren % 78,5a independentziaren alde zegoela erakutsi zuten.

Indonesiako gobernuak ez zuen emaitza hau onartu, eta matxinatuen kontrako errepresioarekin aurrera jarraitu zuen. Milizia, armada indonesiarrak babestuta, emaitzen publikazioaren aurretik ere pentsaezina izan zitekeen indarkeria askatu zuten. Gizon armadunak ustez independentziaren alde bozkatu izaneko pertsonak hiltzen zituzten kaletik. Milaka pertsona banatu zituzten bere familiengandik eta indarrez sartu zituzten kamioietan, norabide ezezagunean. Atzeritarrak ebakuatu zituzten, Timor militarren eta milizia indonesiarren indarkeriaren erdian utziz. NBEak lurraldean esku hartzeko indar internacional bat eratzea erabaki zuen. 1999. urteko irailaren 22an, NBEen soldaduak Dilin sartu eta guztiz suntsituta eta suak jota zegoen herrialde bat aurkitu zuten. Timorreko azpiegituren zati handia suntsituta zegoen, eta herrialdea ia hondatuta zegoen. Xanana Gusmão, erresistentzia timortarraren buru, berehala liberatu zuten. Haibeste itxaron zuten laguntza honi esker, 2002ko apirilaren 14an ekialdeko timortarrak berriz joan ziren bozkatzera herrialdeko buru berria aukeratzeko. Hauteskondeek Xanana Gusmão egin zuten presidente timortar berri eta 2002ko maiatzaren 20an Ekialdeko Timorrek guztizko independentzia lortu zuen.

Uste da indonesiaren okupazioan 150 000 pertsona baino gehiago hil zirela eta 500 000 bat biztanle desplazatu zirela. "Duela gutxiko (1999) datuen arabera, Nazio Batuen misioa Ekialdeko Timorren bakarrik 150 000 pertsona zenbatu ahal izan ditu ustez 850 000 pertsonako populazio batetik. Misio honek dio 260 000 pertsona "gaur egun Ekialdeko Timorreko kontzentrazio-esparru txikietan ahultzen ari dira, zeintzuk



praktikoki milizien menpean aurkitzen diren, biktimek haien etxeetatik ihes egin eta gero, edo haien etxeetatik alde egiteko behartuak izan ondoren", eta 100 000 pertsona gehiago Indonesiako beste tokietara eraman zituztela. Uste da gainontzekoak mendietan ezkutatuta daudela" (Chomsky, Noam, 1999).



## HERRIALDE POBREA

Ikus daitekeenez, eratu berriko herrialde baten aurrean gaude, aristiko historian kanpoko indarren kalte dramatikoak jasan dituen, bere ibilbidea markatuz. Herrialde honetan, biztanleen % 30a hil egin da, eta % 50a baino gehiago kontzentrazio esparruetara, errefuxiatu esparruetara eta herri estrategikoetara desplazatu dute. Nazio Batuek eta beste instituzio batzuek emandako datu batzuek Asiako lurralde honen errealtatea azaltzen digute. Bere milioi bat biztanle baino zerbait gehiagorekin, munduko gutxien garatutako uharte-estatu txikien artean sailkatzen da.

Giza garapenaren indizea (2012) 0,576

Postua 134

BPGa biztanleko 300 euro

Hala ere, behin 2006an jasandako krisi politiko gogorra menderatuta, non iraganeko egoerak berriz bizi zituzten, kaleko biolentzia bezala (600 soldadu inguruk ihes egin zuten eta borroka zibilak, lapurketak, manifestazioak eta hilketak sortu ziren), eta indar internazionalak esku hartu zuten herrialdeari berriz egonkortasuna emateko<sup>1</sup>, herrialdeak 2010ean bere BPGaren hazpen errekorra bizi izan zuen, nahiz eta maila oraindik baxua izan. Honek optimismoa piztu zuen. Sortu berri den herrialde honen egoera ekonomiko eta soziala azaltzen digun beste datu bat NBEaren giza garapen handieneko herrialdeen rankingean duen postua da, hau da, 134. postua 182etik (2012an). Indize honetan adierazleak, besteen artean, bizi-itzaropena, analfabetismo indizea, gobernuaren biztanleko gastua hezkuntzan eta langabezian, batez ere gazteen langabezia, Dili hiriburuan nagusi dena. Pobrezia indizea aipatzen badugu, Ekialdeko Timor klasifikazioaren azken postuetan ikusiko dugu, hain zuzen 122. A 135tik (2009an).

Datu hauek ulertzeko, beharrezkoa da uharte-estatu honen ekonomia azaltzea, errealtateari testuingurua emateko.

Timorreko ekonomiaren oinarria iraupenezko nekazaritza da, eta produkzio baxua eta minifundismoa ditu ezaugarri, zeinetan biztanleria aktiboaren % 80 aritzen den. Beste sektore nabarmena, nahiz eta neurri askoz txikiagoan, sektore publikoa da (batez ere errepideak, eskolak,

1 Krisi hau amaitu zen lehen ministroak kargua utzi zuenean eta honen lekua José Ramos-Horta Nobel Sari eta kantzelarari ohiak hartu zuenean. Gainera, Gusmão-k hauteskunde presidentzial berriak deitu zituen. Hauteskunde hauen bigarren buetan, maiatzean eginda, Ramos-Horta atera zen garaile botoen % 70a baino gehiagorekin, horrela presidente kargua hartuz.



ospitaleak, hotelak, etab. Eraikitzeo). Sektore honek biztanleria aktiboren % 6a biltzen du. Timorreko biztanleriaren % 70a baino gehiago nekazaritza aldetan bizi da, eta % 41a inguru pobrezia-mailaren azpitik bizi da (eguneko AEBko dolar 1 baino gutxiagorekin), Munduko Bankuaren 2010eko azken datuen arabera.

Sektore publikoan, finantziazio iturri nagusia (aurrekontuaren % 90a baino gehiago) bere uretan dauden petroleo eta gasaren esplotaziotik dator. Petroleo eta gasaren esplotazioa (gutxi gora behera % 45a) gestio publikorako doa, iraupenezko nekazaritzarekin ez bezala, non gestio



publikora % 25a besterik heltzen ez den. Tokiko baliabideen esplotazio hau estatuarentzat diru iturri handia izan da. 2009an kalkulatu zen eguneko petroleo upelen produkzioa 86 000koa izango zela, baina 2011 553,8 milioiko erreserbak zituzten, eta 200 000 milioi metro kubiko gas. Ekialdeko Timorrek merkataritza harremanak sortu ditu atzerriarekin lurraldeko uretan aurkitutako lehengai hauei esker, eta bere bezero nagusia Australia da, ondoko herrialdea, garraioan gastuak murriztuz. Gainera, aktibitate ekonomiko honek ekartzen dituen diru sarreari esker, 2005an parlamentuak Fondo Petroleoa sortu zuen, petroleo erreserbak dituzten beste herrialdeen antzekoa, Noruega esaterako, sortutako irabazien deposito moduan funtzionatzeko helburuarekin, eta horrela geroagoko belaunaldietan erabili ahal izateko; hau da, herrialdearen etorkizunean inbertitu ahal izateko. Eskura dugun azken datua pasaden urtekoa da (2012), eta datu honen arabera fondo honek 20 540 milioi AEB dolarreko aktiboak ditu.



Irla honek baliabide natural gehiago ditu. Adibidez, kafea, sandalo egurra, marmorea eta vainilla aprobetxatu litezke, eta industria esportatzaile oso bat garatu liteke. Merkataritza esportatzaile bat egon badago, non kafea nagusi den, herrialdearen esportazioen % 97a izanik.

Erausketaren aktibitate ekonomikoak ez du lanpostu kopuru nahikoa sortu dagoen eskaria betetzeko. 2004ko erroldan bildutako datuen arabera, Timor munduko jaiotza-tasa altuena duen herrialdea bezala azaldu zen, 7,8 ume emakume bakoitzeko, hain zuzen. Horregatik, oso populazio gaztea du (biztanleen % 55ak 20 urte baino gutxiago ditu), zein lan egiteko adinean dagoen. Egoera honetan, lanpostu berriak ia egunero sortzeko beharra dago, batez ere hirietan, eta gehiago Dilin, non biztanleria aktibo gazte gehiena aurkitzen den. Gazte hauetako batzuek familiaren negozioan jarraitzea (iraupenezko nekazaritzan oinarritutako landetxeak) erabaitzen badute ere, eta nekazaritza gunee-tan geratzen badira ere, biztanleriaren sektore honen hirietarako emigrazioa gero eta handiagoa da, goi mailako ikasketak (unibertsitatea) egiteko eta nekazaritza-kanpoko beste lanbideak (aisia, eraikuntza eta Nazio Batuen, embaxadetako, etab. langileek sortzen dituzten aktibitatearekin erlazionatutakoak) garatzeko aukerak direla eta.

Gobernuak gaur egun duen ahalmen txikia dela eta lan eskari guztia betetzeko, batez ere gazteena, turismo komunitarioa, neurri batean, irtenbide bezala azaltzen zaigu. Turismo komunitarioa aipatzen dugu puntu honetan, sortu berri den herrialdearentzako egokiena delako eta bere identitatea eta ingurunea hobeto errespetatzen dituen delako, aurrerago ikusiko dugun moduan, eta gaiaren ikerketan zehar.







# EMAKUMEAK EKIALDEKO TIMORREN

Emakumeak lurralde okupatuan edo errefuxiatu eremuetan ez zuten utzi eskubide besterenezina kontsideratzen zutenagatiko borroka; herri eta komunitate libre bat izatea. Hau Timorreko emakume batek 1996an esandakoak erakusten du: "Zailtasun moral eta material askori aurre egiten ari diogu... Guk, Ekialdeko Timorreko amak... ardua handia sentitzen dugu gure seme-alabak identitate timortarraren babesle hazteko, gobernu okupatzaile baten egoeran. Gure historiaren zehar, beti izan gara herri bat Indonesiaren ezaugarri desberdinekin... Dudarik gabe, ez dugu inoiz nahi izan Indonesia barruan egotea nahi izango. Hau da emakume timortarren irudia: adore eta determinaziodun espiritudun emakumeak, gure askapen osorako Timorren herri osoarekin batera eusten diogunak" (Elisa Lopes da Costa, 1999), baina, erresistentzia izanik ere, emakumeek okupazioaren garaian iraina, apalkuntza eta tratu txarra jasan zuten, ez bakarrik okupatzaileen, militarren eta zibilien aldetik, kasu askotan ere baita beraien komunitateen partetik, esaterako ezkutaketa eta diskriminazioa, bortxaketan ondorio jaiotako umeengatik.

Emakume timortarrek sexuen inguruko estereotipoen ondoriozko diskriminazio estrukturalari aurre egiten diote. Honek emakumeen gaitasuna oztopatzen du hezkuntzan, lan munduan, osasun serbitzuen erabileran eta errepresentazio politikoan. Emakume askorentzat, errealitatea pobrezia eta diskriminaziozko bizitza bat da, batez ere lurralde menditsuetan eta nekazaritza aldeetan bizi direnentzat.

Diskriminazioak eta elikaduraren ziurtasun gabeziak emakumeen osasunean du eragina, desnutrizioa emakumeen artean arazo larria da. Elikaduraren ziurtasun gabezia batez ere egoeraren araberako elikagaien prezioaren igoeren ondoriozko ahultasuna eta Timorreko nekazaritza produktibitate baxuagatik ematen da, nekazaritza hau iraupenezkoa delarik. 15 eta 49 urte arteko emakumeen heren batek desnutrizioa eta energia falta kronikoa jasaten dute, eta hau elikadurarako eskubidearen urraketa da. Ama-hilkortasuna Timorren munduko altuenetakoa da. Ama-hilkortasuna 300ekoa da (heriotzak bizirik jaiotako 100 000tik). Emakume timortarren % 40a baino gehiago 15 eta 49 urte artean hiltzen dira, eta % 67a haundunaldiko konplikazioen ondorio.



“Ama-hilkortasun indize altuak ez dira bakarrik osasun zainketa sistemen eta beste zerbitzu publikoen horniduraren gabezien ondorio, baita diskriminazio estrukturalaren eta emakumeen eskubidei lehentasuna emateko estrategia politikoen faltagatik” Magdalena Sepúlveda Carmona-ren arabera, NN UU (Missão a Timor-Leste)-ko muturreko pobrezia eta giza eskubideetarako kontalari berezia.



Emakumeei gizonei baino gehiago eragiten die pobrezia, eta lurraren jabetzara heltzeko ahalmenak funtzio garrantzitsua jokatzen du hemen. Hala ere, lurraren jabetzaren inguruko datuek ez dute sexuen araberako banaketaren ebaluazio zehatza erraztzen. Lurra erabiltzeko ahalmena jabetza sistema tradizionalen arabera erabakitzen da, lurra- ren lau bosten hartzen dira oinordetzan, eta lur hauetako bi herenekin ohiturazko zuzenbidearen bidez egiten da, J. S. Narciso eta Sousa Henriques (Narciso eta Henriques 2008)-ek dioenez, eta lurraren jabetzaren eta erabiltzeko ahalmenaren banaketa sexuka guztiz ezberdina dela esaten du. Sexuen arteko ezberdintasunak lurra erabiltzeko ahalmena, lurraren jabetza eta kudeaketari dagokionean familietan eta nekazaritza komunitateetan sakon errotutako tradizioen ondorio dira. Tradizion hauek estatuan eta merkataritzan ere nabarmentzen dira.

Ekialdeko Timorren bi senidetasun sistema jarraitzen dira: aita-bidezkoa (patrilinea) eta ama-bidezkoa (matrilinea). Hauek bi bizitoki arau desberdinekin batera doaz: ama-bidezko bizitoki araua eta aita-bidezkoa, eta bi lurraren oinordekotza sistema desberdinekin funtzionatzen dute. Nekazaritza alde gehienetan aita-bidezko sistema da nagusi, non lurra gizonezkoen lerroaren arabera oinordetzen den, eta ba-



karrik semeentzat. Salbuespen dira komunitate matrilinealak (Bunak eta Tetun – Terik taldeetan), non lurra emakumezkoen lerroaren arabera oinordetzen den.

Lurra erabiltzeko eskubidea nork duen, orain arteko galdeketen arabera: gizonen % 72ak lurra erabil dezake, aldiz emakumeen % 3ak, eta kasuen % 25an bikoteko bi kideek. Matata etniaren kasuan, bikoteko bi kideek kasuen % 38ean dute ahalmena. Lurraren erabileraren inguruko erabakiak % 81ean gizonek hartzen dituzte, aldiz % 6an emakumeek, eta % 13,4an bikoteko bi kideek. Datuek egiaztatzen dute lurraren erabilera eta honi buruzko erabakiak gizonek kontrolatzen dituztela.

Emakumeen kontrako diskriminazioa argi ikusten da, adibidez, garapenaren indizea sexuka konparatzean, eta Giza Garapenaren Indizea (GGI). 2004an GGIIa 0,426koa zen, eta sexuen araberrako garapen indizea 0,369koa. Honek esan nahi du emakumeak % 13 batean gutxiago garatuta daudela, hau da, gizonek baino bizi maila baxuagoa dute.



Hurrengo datuek hezkuntzaren arloan dagoen diskriminazioa erakusten digute: 15 eta 60 urte arteko emakumeen bi heren analfabetoak dira, aldiz bakarrik gizonen erdia. Guztira inkestako gizonen % 44,78a joan zen eskolara, baina emakumeen artean kopurua baxuagoa da: % 38,8 hain zuzen. Eskolara joan ez ziren pertsonen artean, gizonen % 73ak zenbatzen daki, baina bakarrik emakumeen % 53,7ak. Lanaren arloan, emakumeak neurri txikiagoan hartzen du parte lan merkatu formalean, eta gutxiago irabazten dute lan berdinetan. Emakumeek ere gizonek beste elikagai jasotzeko probabilitate gutxiago dituzte. Bakarrik emakumeen % 20ak kobratzen du egiten duen lanagatik.



Ideologia patriarkalak, arau kultural os errotuekin, familiako indarkeria-aren arazo larria eragin du. Hau adierazi du nazioetako giza eskubideetarako (Missão a Timor-Leste) kontalari bereziak bere txostenetan. Ikerketek erakusten dute emakumeen % 38ak tratu txar fisikoak jasaten dituztela. Lau kasutik hirutan, tratu txar hauek zenarrak edo biko-teak egiten ditu. Garrantzitsua da momentu honetan barlaque (ezkontza tradizionala)-aren fenomeno azaltzea. Hau bi familien arteko trukea da, non emaztegia transakzioaren parte den. Ezkontza baliabideen transferentzia handia da -dirua, animaliak eta beste ondasunak senargaiaren familiarengandik emaztegiaren familiarentzat – eta honen ondorioz senargaiaren familiak pertsonaren jabe bezala ikusten du bere burua, emaztegiagatik ordaindu egin duelako. Kasu askotan, barlaqueak familiako indarkeria eragiten du, emakumea jabetza delaren ideia bultzatu, familian botere eta ezberdintasun harremanak ezarri eta emakumeak mendekoak izan behar direlaren ideia sustatzen baitu.

Barlaquea praktika diskriminatorioa kontsidera daiteke.

Emakumea oinarrizko eskulana izan da eta oraindik da, lehenik guraso-entzat, familiarentzat, eta geroago senarrek in lan egiten baitu. Familiaren barruan dituen ardurak hurrengo taulan deskribatzen dira.

#### **SUKALDEKO LANAK ETA DIRUA ERABILTZEKO ERABAKIAK (%)**

<b>Lana</b>	<b>Matata</b>	<b>Biluli</b>	<b>Guztira</b>
<b>Sukaldatzeko arduradunak</b>			
Gizonak	0,0	13,3	6,0
Emakumeak	97,3	76,7	88,1
Biak	2,7	10	6
<b>Dirua erabiltzeko erabakiak</b>			
Gizonek	62,2	56,7	59,7
Emakumeek	2,7	20,0	10,4
Biek	35,1	23,3	29,9



Emakumeentzako lanak nagusiki janaria prestatzea, egurra biltzea, ura garraiatzea eta ortua zaintzea dira. Tokiko merkatuetan salerositako soberakinen kasuan, emakumeek batez ere elikagaiak eta batzuetan keramika, saskiak eta ohialak saltzen dituzte.

### LAN NAGUSIEN BANAKETAREN LABURPENA

Lana	Nork egiten du?
Etxeak eraiki	Gizonek
Janaria prestatu, seme-alabak zaindu	Emakumeek
Lurra prestatu (artoa eta arrosa)	Gizonek
Landatu (artoa eta arrosa)	Batez ere emakumeek
Garbitu	Gizonek, emakumeek eta seme-alabek
Bilketa (artoa eta arrosa)	Emakumeek
Garraiatu (artoa eta arrosa)	Gizonek eta emakumeek
Garia jo	Emakumeek eta gizonek
Barazkiak produzitu	Batez ere emakumeek
Barazkiak eta oiloak saldu	Emakumeek
Arroza eta beste animaliak saldu	Gizonek
Egurra garraiatu	Emakumeek eta umeek
Animalia handiak zaindu	Emakumeek eta umeek
Txerriak, ahuntzak eta oiloak zaindu	Emakumeek eta umeek



Ura garraiatu	Emakumeek eta umeek
Elikagaiak saltzeko prozesatu	Emakumeek

Iturria: Joint Agricultural Donors' Mission to East Timor – Mission Report  
2001

### SEME-ALABEN KOPURUA EXTEKO (%)

Seme-alaben kopurua	Guztira	Talde etnikoa	
		Matata	Biluli
0-4 Seme-alaba	29,9	21,6	40,0
4-6 Seme-alaba	38,8	45,9	30,0
>6 Seme-alaba	31,3	32,4	30,0

Orain arte Ekialdeko Timorreko emakumeen oztopoak eta berezitasunak ikusi ditugu, baina kontuan izan behar dugu hau eraldatu daitekeela, eta honetarako turismo komunitarioaren garapenaren moduko ekintzak lagungarri izan daitezke.

Ekialdeko Timor munduko hirugarren herrialde gazteena da, emakumeen parte hartzea gizartean eta gobernuan handitzen ari da. Bere independentziaren lehenengo hamar urteetan "beste askok baino aurrerapen gehiago egin zituen sexu berdintasunaren arloan", Australiako gobernuaren arabera.

2000. urtean Ekialdeko Timorreko Emakumearen lehen kongresu nazionala egin zen, eta honen barruan Rede Feto emakume sarea sortu zen. Sare hau legebiltzar nazionalen eskainuen % 30eko kuota emakumeentzat ezar zedin hasi zen presionatzen.

Ekialdeko Timorren 2006an onartutako lege batek ezartzen du partidu politikoek aukeraturako lau hautagaitik bat emakumea izatea, eta orain parlamentario timortarren % 30a emakumeak dira. Hau ez da ondoko beste herrialde batzuetan gertatzen (peacewomen.org). Zentzu hone-



tan, Ekialdeko Timor, NBE Emakumeak erakundearen laguntzarekin, emakumeen koordinazio erakunde bat sortu zen 2008an. Erakunde honek aktibitate politikoan hartzen du parte, non 14 partidu desberdineko emakumeak biltzen diren: Haforsa Feto Politika Haburas Demokrasia no Unidade.

"Aitzindaritzaren eraldaketarako erakundeetan eta diskurtso politikoe-tan parte hartzen dugu, eta hiru hilabetetan behin emakume parlamentariekin debata dugu", komentatzen zuen Mariquita Soaes, talde honetako kide batek, IPSrako elkarrizketa batean. "Orain gehiago ari naiz ikasten politikari buruz, eta baliteke hurrengo hauteskundeetan, aukera badut, parlamentuan sartzeko prest egotea".

Emakume timortarrak % 80an baino gehiago hartzen dute parte tokiko asanbleatan, Nazio Batuen Garapen Programaren (NBGP) arabera. NBGPak, Ekialdeko Timorreko gobernuarekin batera, tokiko garapen programa baten ekimenean ari dira lanean. Programa honek nekazaritza zonaldeetako parte hartze komunitarioa eta politikoa areagotu nahi du, batez ere emakumeena.









## TURISMO SEKTOREA

Dimentsio ekonomikoaren barruan, lehenago esan dugun moduan, turismoa herrialde baten garapenerako ustiatu eta garatu gabe dagoen sektore edo aktibitate ekonomiko bat da, eta Timor ez da salbuespen bat. Aro kolonialetik aurrera, irla honetan turismo sektorea sustatzen saiatu dira, lortu gabe. Hau kultura timortarra sustatuz egin nahi izan da. Kultura hau, gobernuaren arabera, oilar borrokak; arrantza; orein, bufalo eta txerri basatien ehiza; dantza timortarrak, eta turistei harrera egiten zieten eta herrialdearen aniztasun etnikoaren armonia saltzen zuten jantzi tipikodun neska timortarrak ziren.

Jaio berritako herrialde honen irudia behin ikusita, turismo sektorea, aktibitate honetarako prestatuta ez dauden eskualdeetan aurrera eramanean daitezkeen aktibitate bakarretako bat da, gainera onura eta irabaziak ekartzen ditu, ez bakarrik estatu mailan, baita parte hartzen duten pertsona eta komunitateei.

Gaur egun, kulturaren arloan arbasoei kultura nabarmentzen da. Aipatzekoa da lulik-aren sinesmena nola integratzen den erlijioaren eta erromesaldiaren inguruko turismoan. Umea eta krokodiloaren kondaira ere egitura mitiko bat bihurtu da. Lulik-a sortzailea, arbasoen espiritualak eta bizitzaren sustrai espiritualak biltzen dituen lekua da, baita pertsonen arteko, eta pertsonen eta naturaren arteko harremanak iradokitzen dituzten arauak ere ((The Core of Timorese Values , 2012). Turismo historiko eta kulturalaren barruan, irudi "modernoagoa" ematen da, eta turistari independentziarako borroka erakusten zaio. Turistei eskaintzen zaizkien aktibitate sozialak hauek dira: arroz eta kafe landaketak, arrantza eta Ekialdeko Timorreko biztanleen lana artisautza tailerretan.

Estatuak aktibitate hauetarako baliabideak erabiltzeara eramaten duten motibazioa bilatzen badugu, ikusiko dugu Asia-Pazifiko eskualdeak, 2002. urtetik aurrera, helmuga turistiko internazional moduan hazi dela, bakarrik Europa aurretik duela. Jakina da turismoak lanpostu berriak ekartzen dituela, eta irabazien iturri potentziala dela herritarrentzat. Horregatik, turismo aktibitatea lehentasuna bihurtu da elkarri jarraitu dieten gobernuentzat, herrialdeen garapenerako eta pobrezia aurre egiteko tresna eta baliabideentzat dutelako. Hala eta guztiz ere, turismoa Timorren apurka-apurka egiten den ibilbide luze gisa azaltzen zaigu. Arestiko historia dela eta, gutxi izan dira irla bisitatzera "ausartu" diren turistak.



Munduko Turismo Erakundearen arabera, turismoa pertsona batek bere ohizko ingurak ez diren lekuetara urte bat baino gutxiagorako bidaiatzen duenean egiten dituen aktibitateak dira, bai aisiagatik, bai beste edozein arrazoigatik, betiere zergatia bisitatzeko den eskualdean irabazi ekonomikoak lortzea ez denean. Ekialdeko Timorri buruzko estatistikarik gabe ezin dugu zehaztu herrialdea bisitatu zuten turista kopurua, baina badaude estimazio batzuk.

<b>Denbora-tartea</b>	<b>Urteko turista atzerritarren kopurua</b>	<b>Komentarioak</b>
1960-1975	5 000 (batez ere australiarrek)	Inbasio indonesiarren aurretik
2003-2005	3 000 eta 4 500 artean (Australia eta Bali-tik etorritakoak bidaia antolatueta, bere exotismoak eta aristiko historiak, urpeko igeriak eta urpeko aktibitateak erakarrak)	Independentziaren ondorengo lehenengo denboraldia da. Hiru eskualde bisitatuena Tata Mai Lau, Matebian eta Tutuala dira.
2007-2011	200 000 inguru <sup>2</sup>	Herrialdearen hazkunde aldia

Herrialdearen geroagoko garapenari esker (hotelak, jatetxeak eta aisia), batez ere hiriburuan, langile atzerritar asko heldu ziren (enbaxada desberdinetako ordezkariak, GKEetako eta NBetako langileak, etab.), eta honek aipatutako aktibitate ekonomiko honen garapenean lagundu zuen eta laguntzen du. Timorreko Turismo Elkarteak sortu zen (2003ko martxoan) gobernua nazioarteko eremuan ordezkatzeko.

Turismoaren sektorearen barruan, bai tokiko eta bai nazioarteko GKEk (guk CIDAC GKE portugesearekin kolaboratzen dugu) lagundutako familia enpresa eta enpresa txikietan ingurugiroa errespetatzen duten, pro-

<sup>2</sup> Munuko Turismo Erakundetik ateratako informazioa (urteko turisten jatorria zehazki adierazten den testu osoa): <http://resources.metapress.com/pdf-preview.axd?code=t5wvt1y7rt48ml32&size=largest>



posatzen dituzten aktibitateetan eta instalazioetan politika berdeak ezartzen dituzten, eta tokiko ingurua ustiatzen duten aktibitateengana-ko (abentura-turismoa, ekoturismoa, turismo etikoa, etab.) interesa hazi da. Fundación Haburas-en kasuan, turismo etnikoa kohesio etniko handiko tokietan garatzeko bideratuta zegoen proiektu baten barruan agertu zen. Turismo etnikoa ere tokiko komunitatearen parte-hartze politikoa hobetzeko taktika bezala pentsatuta dago.

Politika hauek jarraituz, beharrezkoa da ostatuak txikiagoak izatea, eta tokiko komunitateek askoz gehiago parte hartzea aktibitate hauetan, kontrol handiagoa hartuz, eta sektore sozioekonomiko desberdinak in-



tegratzea, adibidez nekazaritza. Turismo komunitario honek ere maila desberdinak eskaintzen ditu, oinarrizkotik luxuskoenera. Honen bitartez, komunitateak berrikuntzak egitea, tokiko baliabideak kudeatzea, pertsona bakoitzaren eginkizunak zehaztea, estatuaren botereak herriaren tradizio eta baloreekin elkartzea, etab. indartzen dugu. Timorren, baliabide naturalen eta ondare kulturalaren zainketa eta garapen iraunkorraren sustapena konstituzioan biltzen dira. Horregatik, turismo komunitarioa Timorren identitateari eta inguruari (parke nazionalak, itzas-hondoak, erreserba naturalak, kostaldea -ostatu erabilgarri gutxi-ekin- etab.) behar bezala egokitzen zaio. Gainera, turismo komunitario honi esker okupazio indonesiarraren garaian debekatuta zeuden zonalde batzuetan bizi daiteke jendea berriz ere, Uma Lulik-ak (etxe sakratuak) berreraiki dira erritualak eta tradizioak mantentzeko, eta jarduera tradizionalak berreskuratu dira, artisautza esaterako. Txosten hau egiteko landa-azterketak egin dira hurrengo komunitateetan: Moubisse, Moubara, Toutuala, Atauro eta Dili.



Hiriburuan, Dilin, turismo mota desberdina ematen da. Hoteletan kontzentratzen da (1 300 ostatu erabilgarri baino gehiago) eta ostatu hauek erabiltzen dituzten bezeroak batez ere biztanle atzerritarrek dira (Nazio Batuetako langileak, GKEetakoak, enbaxadetakoak, kooperazio agentzietakoak, etab.) Bezero hauek urte bat baino gehiago geratzen ohi dira. Hortaz, Munduko Turismo Erakundearen arabera, bezero mota hauena ez da turismoa, baina turismotzat hartu dezakegu tokikoei egiten dien ekarpena kontuan hartuta, bai hauek egiten dituzten bisitekin, bai hauen senide eta lagunek egiten dituztenekin, azken hauek gainera motzagoak izanik). Hiriburuko turismoa eta hiriburutik kanpokoa desberdintzen dituen beste aspektu bat da Dilin aktibitate turistikoa bai to-mortarren enpresetara, bai enpresa atzerritarretara (Australia, Singapur, Malaysia eta Indonesiako enpresetara, batez ere) iristen dela; hau da, ez da tokiko komunitateetara bakarrik zuzentzen.

Behin Ekialdeko Timorreko ekonomia irudikatuta, eta turismoa herrialdearen identitatea, baliabideak eta ingurua errespetatzen duen garapenerako aktibitate gisa duen garrantzia aipatuta, batez ere turismo komunitarioak, irlako biztanleriaren banaketa nabarmendu behar dugu. Hurrengo biztanleriaren antropologia ezagutzeko lehen lerroak dira.

Egitura soziala, politikoa eta kulturala Timorren hiru faktoreek definitzen dute: «gu» eta «haiek» artean desberdintzea, gaur egunaren eta tradizioaren elkarbizitza, eta komunitatearen, Elizaren eta Estatuaren arteko banaketa.

Irla-herrialde hau kultura desberdineko eskualdeen elkargunean aurkitzen da, hainbat mendetan zeharreko kolonizazioaren ondorioz. Horregatik, egitura antropologiko guztien memoria kulturala aniztasunean oinarritutako identitate nazionala eratzearen prozesuan parte hartu duten elementu garrantzitsuenetakoa izan da. Timor bi eskualde kulturaletan dago: Asia eta Pazifikoa. Gehiago zehaztuz, geografikoki Indonesia eta Melanesia artean aurkitzen da, eta alde etnolinguistikoa kontuan hartuta herr austronesio eta papuak biltzen ditu. Hala ere, ezin dugu bakarrik desberdintasun kultural hau egiten; baita bata bestearen atzetik, modu batean edo bestean, eskualde hau kolonizatu duten herriek markatu duten desberdintasuna ere kontuan hartu behar dugu. Honek ekarpenak egin dizkio herrialdeari. Ekialdeko Timor kultura eta herrien ekarpenarekin jaio da, ondorioz irudio sozio-kultural eta politiko-instituzional hau eratuz. Kolonizazio prozesu hauetako bakoitzean denboran mantentzen den berezitasun bat sortu da.

Hala ere, gizarte berri honen sorreran zehar ez dira trantsizioaldiak errespetatu bata besteari jarraitu dioten denboraldi guztien artean. Horregatik, timortarrek beraiek hartu behar izan dute hitzarmen bat ti-



mortarren beraiek inposatu zitzaizkien identitateekin. Zentzu honetan, «timorizazioa», herriak berak behar zuena, ia existitu ez zen trantsizio-prozesu baten barruan, identitate aniztasun prozesu bat bihurtu zen. Identitate hauek definizioen eszenatoki sozial eta sinboliko berean errol desberdinak antzetzen zituzten aktoreen itxura hartu zuten. Modu honetan, iragana itzuliz eta gehituz, etorkizun gogor eta iraunkorra eratze bide bakarria bezala azaltzen zaigu.

Kultura eta herrien arteko nahasketa hau Timorrek gaur egunaren eta tradizioaren artean hautatu-beharraren kausa nabarmenena da. Aldi berean, Eliza, Estatua eta komunitatearen arteko banaketa aipatu behar dugu.

Kultura timortarraren oinarritzko ezaugarri bat Etxe Sakratua da, bere identitatea ulertzeko kontuan hartu behar duguna. Etxe Sakratua (Uma Lulik, tetum hizkuntzan) herri honen sistema sozio-politiko tradizionalaren oinarri eta erreferentzia moduan funtzionatzen du. Gaur egun, Etxe Sakratua parlamentu moduan funtzionatzen duen instituzio politikoki egonkorra da oraindik. Gainera, instituzio hau legitimitate politikoki iturburu bat da, non gizartearen eredu hierarkiko eta aristokratikoaren oinarriak aurkitzen diren, eta familia jakin batzuetako kide izatea garrantzitsua izaten jarraitzen duen. Hala ere, Uma Lulik ez da bakarrik kosmogonia bat, baita gizartearen antolaketa bikoitzaren irudikapen metaforiko bat ere, non botere sakratua eta botere zibila desberdintzen diren. Modu honetan, botere espiritualaren eta botere politikoaren ordezkarien arteko hierarkia eta desberdintze bat nabarmentzen dugu, batzuen eta besteen eginkizunen mugak markatuta eta beste unitate eta indar politikoeekin elkartasunak erabakita.

Erljioaren eta arlo zibilaren artean eman den polarizazio honek tentsioen iturburu den sistema demokratiko moderno batera eramaten du herrialdea. Tradiziotik gaur egunerako trantsizio honetan, eta borondate kolektibo orokorraren sorreraren eta eboluzioan ezin ditugu modu dinamikoan erain duten gizartearen indarrak ahaztu. Identitate eta idiosinkrazia timortarraren defentsa eta sustapenerako indar nabarmen hauek bat Eliza Katolikoa da, baina ez da bakarria. Eliza Katoliari bere lana eskertu behar zaio hain zuzen eta batez ere inbasio indonesiarren garaian portuguesaren eta tetum-aren biziraupena irlan, eta han giza eskubideen kontra egiten ziren abusu eta urraketak salatzean egin zuten lana. Erlojioso hauek Timorren identitate kulturalaren defedatzaile amorratuak izan ziren: bere berezitasunaren ideia ezagutu eta hedatu zuten. Gainera, Eliza Katolikoak, irlara desplazatu ziren bere langileekin, ez zuen bakarrik lan pastorala betetzen, baita eginkizun soziala ere (hezkuntza eta eskolak) eta ia-politiko (lurrak ditu eta esparru politikoa eragina du).



Ekialdeko Timor herrixketatik eratutako herrialde bat da. Egia esan, %80a baino gehiago landa-eremuetan bizi dira. Ikuspuntu antropologikotik, herriak komunitatez eraten dira. Komunitate hauetan, kideetako baikoitzak beste kideak ezagutzen ditu, eta ezagupen hau batasun pertsonalago baten moduan ematen da kasu batzuetan (elkartasunak edo ezkontzak, esaterako), eta hauen artean harremanak indartsuagoak dira. Komunitatea herri timortarraren oinarria da. Baina, beste aldetik, nazioa dugu, «irudizko komunitate»tzat hartzen dena, non kideak



inoiz ez diren elkar ezagutzera iristen, eta inoiz ez dituzten harremanak izango, eta ondorioz ez diote bata besteari entzungo. Alabaina, haien gogoan badago hauen bien elkartasuna. Horregatik, nazio baten eraketa ez da bakarrik hiriburuan, Dilin, egiten den ahalegin politiko bat. Pertsonen gogoetan ariketa sortzailea ere beharrezkoa da. Ahozko tradizioa nagusi den herrialde batean gertatzen da hau, biztanle gehienak analfabetoak direlako. Egunkariak eta beste hedabideak ez daude oso zabaldua. Horregatik, beste eragileek eta sortzaileek dute eragin psikologikoa ideia berrien sorreran, jasotzean eta prozesamenduan. Metaforikoki, Timorreko nekazarien gehiegoaren arabera, nazio baten sorrera etxe sakratu baten sorreraren antzekoa da: gizonak eta emakumeak dira beharrezkoak, eztabaidak, materialeak, erritualak, liderrak, haien kulturaren taldeko irudia eta muga batzuk (espiritualak ere) besteen aurrean. Tokikoentzat, nazioa (gaur eguna) bizitzari buruz duten irudiaren ondorioa da: lurrarekin harreman jarraia eta arbasoak (tradizioa). Hauek adibideak dira kultura tradizioan oinarrituta egoteak ez duela aurrerabidea oztopatzen erakusteko.



Sarrera honetan nabarmendu nahi dugun azken kontzeptua, eta ikerketa honen helbururako balio diguna, gizarte bat bere sutraietatik nola irudikatuta dagoen ideia da. Haien arabera, erdigunea barnealdea da, eta periferia kanpoaldea. Barnealdea ezkutua da, eta kanpoaldeak babesten du, ama baten bihotza babesten den moduan. Hortaz, barnealdea emakumezkoa da, beltza eta iluna, eta kanpoaldea gizonezkoa da, zuria eta argitsua. Batak bestearen beharra du. Irudikapen honek haien gizarte maila guztietan nola antolatzen duten ulertzen lagundu ahal digu, eta, zihur aski, nahiz eta landa-azterketak eta honez gero ateratako ondorioek azalduko diguten, irla-nazio honetan turismo sektorea nola antolatzen eta banatzen duten ulertzen ere lagunduko digu.







# KOMUNITATEEN ETA KOOPERATIVA NATURALEZA-REN DESKRIBAPENA: KANPO LANA

## MOUBARA

Maubara (Maubere) Liquiçá distritoko azpidistrito bat da hiriburutik 50 kilometrotara. Liquiçá (tetun-ez Likisá) Ekialdeko Timorreko 13 distrito administratiboetako bat da, herrialdeko ipar kostaldean.

Azpidistrito honetan 18 510 biztanle daude. Hiztun talde handiena tokodeko hizkuntza nazionalaren hiztunek osatzen dute.



Maubaran Timorreko manglar ohian gutxietako batzuk aurkitzen dira. Herritik hiru kilometro ekialdera Maubarako albufera dago (Sia Maubara), hegazti askoren habitata dena. Okupazio indonesiarraren garaian, 1999 an, milizia pro-indonesiarrak (Wanra) sortu ziren, independentziaren inguruko erreferenduma manipulatzeko helburuarekin. Maubara herrian Ekialdeko Timorreko bortitzenetako bat sortu zen, Besi Merah Putih (BMP), toki hau haien koartel nagusia izanik. Pertsona askok ihes egin zuten haien ekintzen beldur. Milizia hauen ondorio nabarmenetako



bat bai erreferenduma baino lehen, bai independentziaren iragarpenaren ondoren egin ziren krimenak izan ziren.

Moubara azpidistritoak osatzen duen komunitatea Lisalaran (50 familiek osatuta) eta Samanaro (86 familiek osatuta) biltzen ditu. Herrixka unitate administratibo txikiena da. Soku bat udalerrri bat baino entitate administratibo nagusi txikiago bat da. Gaur egun tokiko biztanleak kafea landatzen dute, eta nekazaritzara dedikatzen dira (mandioka, artatikia, batata, etab.) eta abelzaintzara.

Proiektu turistikoa aurrera eramaten duen taldeak 21 pertsonen osatzen dute, 7 emakumek eta 14 gizonen. Instalazioetan hurrengo dago: tokiko materialekin egindako hainbat bungalow hondartzaren ondoan, espazio amankomun bat jantoki batekin eta mahaia eta aulkiekin, eta biltegi bat eta sukalde bat kanpoko eraikin batean. Sukaldea ez da funtzionala, eta lurrean sukaldatzen dute, hortik etxeko animaliak igarotzen dira. Ekipamendu sanitario egokiak badaude, eta baratze gisa erabiltzeko lursail txiki bat.

Sukaldeko gabeziak, kasu guztietan kea kanporatzeko lekuri gabe, eta honek janaria prestatzen duten emakumeentzat dakarren eragozpenarekin, egurrarekin berotzen dira, eta lurrean jarrita daude. Ez dago etxeko animalien sarrera eta irteerarako kontrolik, eta ez dago hauetarako banaketa edo oztoporik.

Dilirekin komunikatzeko kamionetak daude (3 eguneko) eta autobusak (2 eguneko).

Tokia bisitatu zenean, aktibitate honetara dedikatutako pertsona gehienekin eztabaida bat mantendu zen. Eztabaida honetan Haburaseko koordinatzaile nagusiak parte hartu zuen, baita zonalde honetako sustatzaileak ere, Haburasek ere, CIDAC GKE portugesak ere, eta guk, SO-DePAZeko bi pertsona.

Debateak bi ordu inguru iraun zuen, 19.00 eta 21.00 artean, eta baikoitzak banan banan erantzuten zituen hainbat galdera plantetu ziren. Kooperatibarko arduradunak proiektuaren historia berria kontatzen ireki zen bilera.

Aktibitate turistikoa 2010ean hasi zen, eta bi urte hauetan aldaketak sortu dira, eta momentu hartan talde kontzientzia eta koordinazio gabezia nabari zen.

Talde kohesio lan oso nabarmena egin da. Haburas eta taldearen artean komunikazio ona mantendu da eraikitze-fase osoan (tokiko materia-



lekin eginda). Lana banatu zen bai etxean bai proiektuan lan egin ahal izateko, taldeko pertsonak txandakatu zirelako.

Denbora asko erabili zen eraikitzeko, proiektura dedikatutako momentuak eguneroko lanarekin txandakatzeko. Parte-hartzaile guztien aldar-te ona izan genuen. Arazoak konpontzeko komunikazioa ondo funtzio-natu zuen, Haburasekin ere.

Partaideetako batek hurrengo galdera planteatzen du, hitz-hartze erronda bat irekiko duena: «Haburasek 2010an talde bat sortzea pro-posatu zigun. Uzten bagaituzte, nola jarraitu ahal izango genuke? Zer egin behar izango dugu Administrazioak gu kontuan hartu ahal izateko?»

Galdera honek erantzunik ez badu ere, toki honetan eta kolektibo ho-nekin aktibitate turistiko bat hastearen idea kooperatiba barruan ez dela nahiko eztabaidatu pentsatzera eramaten gaitu, bai eta planteatu zenean antolaketa ez zela egokia izan. Instalazioak eraikitzearen lanak, Haburas GKE beraren laguntza etengabe eta eskumenekoarekin, modu oso positiboan baloratzen da, eta taldea mugitzeko eta batzeko balio izan du, baina proiektua hasteko momentuan laguntza behar dugula nabaritzen da, honen desagerepenaren beldurrez eta nahiaz.

Hurrengo galdera, SODEPAZek egina, turista nola ikusten zuten izan zen. Orokorrean, turista pertsona atzerritar gisa ikusten da, tokiko tu-ristaren ideia zailtasunez irudikatzen da.

Orokorrean, ikuspegi honek zerbitzuak errealitate batere desberdinetatik datozen turistentzat zuzentzea ekarri du, nortzuen beharrak asetze-ko, haien ahalmenetik abiatuta, ezinean ikusten duten beraien burua. Beraien aktibitate nagusian egiten dutena ez dute baloratzen, edo in-guratzen dituen eremu naturala. Gabeziak haien potentzialak edo ahal-mentak baino gehiago nabarmentzen dituzte.

Nabaritzen da turismoaren bidez baloratu nahi zena erabakitzen helt-zeko aktibitate turistikoaren ezarrera baino lehen behar bezalako talde lan bat ez dela eman.

Turistekin hurrengo aktibitateak antolatzen direla kontatzen digute: kafe zelaietatik paseoak, bisitak turisten kotxeak erabilia, eta hondart-zatik paseoak segurtasuna babesten duten pertsonekin. Aktibitate ha-uetatik bat ere ez, ezta prezioak, ezta beste informaziorik ere ez dago ikusgai gunean. Ikusgarritasun falta honek aisia-aktibitate hauek den-boraz kanpo egiten direla edo inprobistatua daudela pentsatzera era-maten gaitu.



Garraioa gabezia oso nabarmena da, batez ere jakien garraiorako, suministrooa ez baita azkarra eta eraginkorra. Kasu askotan, motor bat alokatu behar dute erosketak egiteko, eta honek kostuak handitzen ditu.

Ikusi dugu bilerara gurekin etortzen diren gazte batzuk motozikletaz etortzen direla. Hau ikusita, eta garraio baliabide hauek kooperatibaren zerbitzura zergatik jartzen ez ziren galdetzen dugunean, erantzuna harridura izan zen, pentsatu ez balute bezala. Kide batzuen inplikazio gradua baxua dela pentsatzera eramán gaitu honek, eta kide hauek ez dutela ikusi beraien baliabideak taldearen beharren zerbitzura jarri ahal direla.

Taldeko kideek ez dute beste hizkuntarik ezagutzen, ezta ingelesa, ezta portugesa ere. Emakumeetako batek adierazten du: «Janaria prestatu ahal dugu, baina ez dakigu nola esan hau jendeari». Uste dute turistak ez direla bueltatzen ez dakitelako komunikatzen. Ez dago harremanik. Beste pertsona batek esaten du: «Pozik gaude turismoaren lanarekin, lehenago honetaz hitz egiten zen, baina ez genekien zer zen». Gauza batzuk hobetu behar direla badakite, garbiketa bezala, eta etengabe lan egitea beharrezkoa dela, ez bakarrik noizean behin.

Beste pertsona batek esaten du: Pozik nago kooperatiba honekin, lan-gabezia jaisten du, arloa garatzen da. Arazoa da turistak Haburara doazela eta kontaktatzen dutela, orduan hemendik bagoaz eta dena erosten dugu, itxaropenarekin, eta gero ez datoz». Erreserbekin atzera egiten dutenean, abisatu eta gero edo abisatu gabe, arazo bat da.

“Erreserben zentrala”, Haburas GKE eta zentru turistiko komunitarioen arteko komunikazio falta hau bilerak egin ditugun kooperatiba eta talde guztietan ematen da. Orain arte erreserben zerbitzuari garrantzi gutxi eman zaiola erakusten du, eta honek guztiak behar duen protokoloari, konpromezuak, diru-aurreratzea, penalizazioak, etab., orokorrean, toki bakoitzeak aktibitatearen kudeaketa eta planifikazioa hobetzeko behar direnak.

Taldeko kideek ez dute materiale batzuen falta nabaritzen, esaterako ur freskoa edukitzeko hozkailu bat edo jakiak eta tresnak gordetzeko armairu bat. Sukalderako eta jatetxerako delantalak eta mantelak egiteko josteko makina bat falta da. Hemendik hurbil beste jatetxeak egoteak nolabaiteko lehia sortzen du, eta kooperatiba honek ez du bere burua gai ikusten honi aurrera egiteko.

Gabezia guzti hauek, kudeaketa turistikoaren parte direla, emakumeek adierazi dituzte, sukaldeko eta garbiketako lanetan gehien inplikatzeko direnak. Nabarmentzekoa da, kasu honetan, garbiketa eta manteni-



menduaren arduraduna gizon bat dela, aldi berean, lan hauek aurrera eramateko orduan nabaritzen den ganora falta garbien adierazten duena. Lan guztietarako asteko egiten den taldeen txandaketak direla eta, ikerketa honetarako kasu guztietan egiten dena, lan bakoitzean kalitate estandar batzuk mantentzea zailtzen du. Ulertzen dugu taldeen errota-zioaren ohiturak kooperatiba edo taldeko kideek beraien aktibitate nagusia ez uztea bermatzen duena, nekazaritza eta arrantza kasu honetan, - Turismo Komunitarioaren oinarriko printzipioetako bat - eta taldea bere osotasunean inplikatzeko ere bermatzen du. Baina, aldi berean, turismo zerbitzuan hobekuntza eta formazioa zailagoa egiten du, eta taldeen arteko kekek eta gatazkak sortzen ditu.

Galdetu genuen ez zeuden diru sarrerarik egon orain arte ekipamendu hauek erosi ahal izateko, eta erantzuna izan zen egon bai egon zirela



onurak, baina beste gauza batzuetarako erabili ziren, esaterako janaria taldeko kideentzat erosteko, eta umeen eskolako gastuetarako.

Bisitaren aurreko hilabeteetan askoz turista gutxiago egon direla nabari izan dugu; lehen ostiral, larunbat eta igandeetan beteta zegoen beti. Zergatik galdetu genuen, eta erantzuna izan zen ez zekitela, eta uste zutela gabezien ondorioz ez zirela bueltatzen. Kontuan izan behar dugu bisita baino hiru hilabete lehenago Ekialdeko Timorrera bidali zituzten NBetako langileek herrialdea utzi zutela. Hau funtsezkoa izan zen, turisma mota nagusia NBetako funtzionariak bait ziren.

Taldeak uste du formakuntza gehiago behar duela, turismoari buruz gehiago ikasi, turismoaren iguruko beste esperientziak ezagutu.



Badago txandakatze sistema bat emakumeek aktibitate turistiko guztietan parte har dezaten. Eraikuntzan izan ezik, non ez duten modu zuzenean parte hartu, baina bai langileen janaria prestatzen, eta diseinuan, zer eraiki behar zen erabakitzen.

Kooperatibako kide den emakumeetako batek hurrengo adierazten digu «etxean sukaldatzen duena naiz, arropa garbitzen duena, baita turismoan lan egiten dudanean ere lan hauek egiten ditut [...]. Etxean egiten dudana sukaldaritzan errezeta berriak praktikatzen ditut gero hona ekartzeko, turistei gustatuko zaien janari hobea egin dezaket.»

Ikasketa faktorea eta seme-alaben hezkuntzarako diru sarrerak lortzea oso motibazio garrantzitsua da emakumeentzat, «Turismo lan hauetara etortzen hasi nintzen eta parte hartzen, eta ikusi nuen gauza asko ikasi ahal nituela [...]. Talde honetan parte hartzea oso garrantzitsua da gure etorkizunerako eta gure seme-alabak eskolara joan ahal izateko», esaten digute. Kontuan hartu behar dugu emakumeek familia-ekonomiara diru sarrera gehienak ekartzen dituztela, gizonen aldean, bakarrik %20a ekartzen dutela.



## MOUBISSE

Moubisse Dili eta mendi altuenaren arteko bidean aurkitzen da. Mendi altuena Ramelau da (3 000 metroko altuerarekin) hiriburutik 72 kilometrora. Maubisseko Suco-ko hirialdeak 6 284 biztanle ditu. Biztanleriaren 70%ak inguru mambai hitz egiten du, eta 20%ak inguru tetum-prasa. Azpidistritoa 1 526 itsasotik metroko altuera duen eskualde



menditsu batean dago. Bere merkatua nagusia da eskualdean. Paisaia 1980ko hasieratik aurrera deforestatua izan da leku askotan, baina oraindik daude baso txikiak alde baxuenetan.

Instalazio turistikoa Ramelau hirirantzeko irteeran kokatuta, 2 kilometro inguruko distantziara.

Administrazio timortarrak Moubisseko zonaldea sustatzen du, Atauro iriarekin batera, Dilitik hurbil dudelako. Dili hiri kosmopolita bihurtzeko ideiarekin proiektatzen da, munduko kultura askoren eraginarekin. Proiektua abentura turismoa sustatzea da, hurrengo aktibitateekin, esaterako: ibiltzea eta Ekialdeko Timorreko mendi altuena igotzea, Ramelau mendia. Gobernuak Moubisse ostatu historikoa konpontzea aurreikusi du, baita etxe pribatuetan ostatua sustatzen du. Eskaintza turistikoa zonalde honetan herrialdean garrantzitsuenetakoa da.

9 bat ostatu daude (guest house), logela bakar batekin; hortaz, gehiezin bi pertsonentzako kapazitatearekin. Ostatuak zerbitzu guztiak eskaintzen dituzte (dena barne) pertsona bakoitzeko 25 dolarren truke.



Ikerketa honetarako erabili dugun ostatuan prezioa 40 dolar logelako da, nahiz eta prezioak oso argi ez egon. Gehienez bi pertsonarentzako kapazitatearekin. Datu hau aipatzen dugu kasu honetan argi dagoelako, baina ez oso zehatz.

Bisitatzen dugun ostatua 2011 eta 2012 artean eraiki zen eta 2013an fundatu zen, esperientzia berriena izanez.



Instalazioek bi bungalow dituzte, espazio amankomun bat egongela batekin, jantoki moduan erabiltzen dena, egongela gainean logela bat hainbat pertsonentzako oheekin, alberge moduan, komun banatuak, hondakinen tratamendua eta egoki ekipatuta, sukalde bat, oraindik eraikitzeko fasean, kanpoko eraikin batean eta itxita, kea ateratzeko prestatuta ez dagoena, eta ekipamendu egokirik gabe, zementu oinarri baten gainean sukaldatzen dute. Ostatuan gehienezko kapazitatea 13 pertsonentzako da. Prezioak ez daude argitaratuta, baina bai txangoen prezioak. Izatez, etorri diren bisitari gutxik kontratatu dute txangoren bat.

Iniziatiba hau eramaten duen taldea 60 pertsonen osatzen dute, bi herrixka ordezkatur. Familia bakoitzak errepresentante bat du. Herrixka bat bestea baino aktiboagoa da. Arrazoa distantzia da, herrixka oinez ordu batera dago kokatuta. Urte batean eraiki zuten lau gizonen. Taldean portugesa eta ingelesa hitz egiten duten pertsonak daude. Taldea 2009an sortu zen, bere izena KNUA HAKMATE da, bake eta lasaitasun lekua esan nahi du.





Gazteak eta helduak daude, 25 emakume eta 35 gizon. Pertsonen kopurua mantendu da 2009 an fundatu zenetik. Sartu nahi duen pertsona bat sartu ahal da jarrera kodean deskribatzen diren irizpideak onartzen baditu (hauetako batzuk ardura, lanean eta aktibitate amankomunetan kolaboratzea dira)

Bi azpitalde daude irizpide hauen barruan: mantenimendua, eta garbiketa eta sukaldea.

Onurak daudenean, erabaki da %10a herrirako izango dela komunitatearen beharrak asetzeko. Diru hau herriko buruari ematen zaio eta talde honek dirua zertarako erabiliko den jakin behar du. Aktibitate turistikoan zenbat denbora ematen duten galdetzen badugu, erantzuna ez da zehatza, bi talde daudenez, zein talderi tokatzen zaion eta momentu bakoitzean dauden turista kopuruaren arabera bait da.

Komunitatea nekazaritzan iharduten du. Okupazio indonesiarren garaian, haziak eta lurra lantzeko ekipamenduak eskaini zitzaizkien. Aza, azenahorioak, ilarrak, indabak, urazak, mandioka, batata, kafea, artatxikia landatzen dituzte, beste batzuen arten. Kafearen produkzioa nagusia da, indabekin batera. Lurrak ondasun indibidualak dira, eta taldeak bere lursaila du, non dena landatzen duten, kafea izan ezik.

Gu heldu ginenean antolatu zen bilera orokorrean, arratsaldearen hasieran eta bi ordu baino gehiagoz zehar, lehengo kasuko dinamika bera mantentzen dugu. Pertsonak zerbait berandu heltzen dira, eta partaide kopuru handia eserita ez dagoen arte, ez dira beste batzuk heltzen. Taldeko koordinatzaileak aitzindaritza handia erakusten du, hitza hartzen saiatzen da. Proposatutako dinamikak joera hau aldatzen du, partaide bakoitzak bere iritzia adieraz dezala utziz.

Nola erabaki zuen talde honek aktibitate turistikoarekin hastea? Haburasen laguntza izan duen berezko ideia izan da. Beraien erritual kulturaren, apirilean komunitateak jende asko gonbidatzen du parte hartzera. Ospakizun hauek pertsona asko erakartzen dituzte, eta hau izan zen arrazoietakoa bat partaidetza jendetsua aprobetxatzea pentsatzen has-teko. Moubissen fiut besi (harri sakratu) bat ere badago. Urtarrilean, martxoan eta apirilean egiten dira ospakizunak. Komunitateak bere ondasun kulturala baloratu nahi du. Uste dute turista australiarrek ospakizun hauetan interesatuta egon daitezkeela.

*Kasu honetan, Moubararen kasuan ez bezala, taldeak argi dauka zer baloratu nahi duen aktibitate turistikoaren bidez: ondasun kultural edo errituala. Gainera, ez ditu turista atzeritarrak bakarrik erakarri nahi, baita timortarrak ere, bai familiaikoak bai kanpokoak, ospakizunetan Moubissera datozenak. Familia biltzeko modu bat da, familia-lazoak in-*



*dartzeko eta kultura propioa sustatzeko. Beraien kultura beste kulturen interferentzietara irekitzeari buruz genuen arduraren aurrean, erabateko zihurtasunez azaltzen dute haien ondasun kulturala eta erlijiosoa kalterik gabea dela. Buruzagi erlijiosoekiko harremanagatik, eta seni-deekikoa, talde hau batuena da, eta bere planteamenduan erabaki indartsuena azaltzen duena. Dimentsio komunitarioa komunitateari onuren parte bat emateko erabakiaz bizi dute, taldeak onura hauek nora doazen jakitea exijitzen badu ere. Nabarmentzen dugu gure bisitan zehar Suko buruzagia instalazioetan azaldu zela emakumeen elkarrizketen grabazioetan hitza hartzeko asmoz.*

### **Itxaropenak Eta Beldurrak:**

Koordinatzaileak adierazten du bere itxaropena dela turistek haien etxe sakratuak eta haien kultura ezagutu dezatela; turistak erakartzea, familia-harremanak indartzea barruan eta kanpoan, eta erritual hauen bidez.

Haien kultura erakustea dirua lortzeko modu bat da haien seme-alaben eskola eta hezkuntza ordaintzeko. Turismo komunitarioan parte hartzea "gure bizitzak hobetzeko" baliabide bat bezala ikusten da, eta Haburas GKEak toki hau (eta haien ostatua) sustatzea turistak egoteko.

Kanpoko beste pertsonak ezagutu nahi dituzte eta hauek komunitate hau eta haien kultura ezagutzea, eta besteekin harremanak izatea. Beste hizkuntzak ikasi nahi dituzte, eta haien seme-alabek ikas dezaten.

Jateko ematen diren produktuak tokikoak dira, arroza eta olioak izan ezik. Lanak banatzen dira: gizonek erosten dute, eta emakumeek sukaldatzen dute.

Cristilina, komunitateko emakume batek esaten du taldean sartu nahi izan zuela osatu zenean. Familia bat ordezkatzeko du, eta taldearen barruan badago bere neba bat, gazteagoa. Aktibitate desberdinetan ihar-duten dute. Berak garbiketan lan egiten du, eta nebak segurtasunean. Formakuntza eman zaie gidak izateko, baina portugesa ikasi nahiko luke. Ikaslea da eta 18 urte ditu.

Filomenak, taldeko kidea dela, adierazten du taldean sartzea erabaki duela Moubissen turistei bere herria erakusteko. Konsigna ematen du kultura eta lasaitasuna bi balore nagusiak izatea. Familia bat ordezkatzeko du ere, eta taldean neba gazteago bat ere badu. 30 urte ditu eta 7 seme-alaba. Seme zaharrenak 14 urte ditu, eta gazteenak 2 urte. Senarra taldeko aholkularia da, eta elkarrizketaren bitartean seme-alabak zaintzen ditu. Sukaldeaz ere arduratzen da. Sukaldearen ezaugarriak



ikustean, non ke asko dagoen, eta lehio eta tximiniarik gabe, sukaldea-ren baldintzei buruz galdetzen dugu (haien sukaldea ostatukoa bezalako da) eta bere erantzuna da begiei kalte egiten diola. Ondorioz kearen arazoa nola konpotzea galdetzean, esaten digu irtenbidea lehio bat irekitzea dela. Ostatuan lehio bat jartzea aurreikusi dutela esaten du, baina gero ikusi genuen ez zela egia.

Isaura, barne-egiturako burua, azaldutako organigramako emakume bakarra, taldea indartu nahi du turistek bere kultura ezagutu dezaten, bai berak haiena ezagutzeko. Familia bat ordezkatzan du, beste kide bat, neba bat bize-koordinatzailea da, eta beste neba bat kargurik gabeko kidea da. Bera ama oso pozik dago hiru seme-alabak taldean daudelako. 18 urte ditu eta ikaslea da Moubissen, bigarren hezkuntzako eskolan, eta ez ditu seme-alabarik eta zenarrik. Bere lana garbiketa koordinatzea eta sukaldatzea da. Portugesezko eta ingelesezko ezagupenak ditu. Oinezko txangoak ere antolatzen ditu. Txangoak banatuta kobratzen dira, 15 dólar 2 orduko distantziagatik, eta 30 dólar luzeagoak. Inork gehiago ez ditu txangoak antolatzen herrian. Turista bati hona etor dadila zer esango zenioken galdetzen dugunean, hiru emakumeek hurrengo erantzuten dute:

«Prest gaude eta toki seguru eta klima osasuntsu bat dugu turistak jasotzeko gure bungalowetan gau batzuk eman ditzaten. Pozten gara zuek gure materialekin eraikitako gure leku seguru eta sinplean jasotzeaz. Gure lekua sinplea eta bakarra da Moubissen... turistak jasotzeko prest.»

### **Testigantzak:**

«Taldea hau indartu nahi dugu beste pertsoneri erakusteko hemen toki seguru bat dugula turistak gu ezagutzera etor daitezen, nolakoak garen ezagutu dezaten, eta guri beste pertsona batzuk ezagutzea gustatuko litzaiguke, eta pertsona haiekin hitz egitea eta erlazionatzea.»

Talde honetako emakumeek, organigrama instalazioetan azalzten duten bakarra, kargua duen emakume bakarrak bere izena idatzia ez badu ere, aktiboenak dira. Turismoaren inizatibarekin etxeko lanak tartekatu ahal izateak haien ezagupenak gida lanetan erabili ahal dituzten emakume gazte eta heziak edukitzeak, aktibitate hau hasi nahi duen komunitatearen kohesio indartsuak, eta hortaz emakumeak tradizioen kontra ez doan egile moduan ikusten dituen, eta esperientzia hau jasangarriena bezala ikusten duena, nahiz eta hasteko dagoen bidea kontuz begiratu behar dugun.



## TUTUALA



Tutuala Lautém distritoko azpidistrito bat da, Ekialdeko Timorren. Timorreko ekialdeko muturrean kokatuta dago, hiriburutik 232 kilometrotara. Biztanleria 2004ko censoan 3 707koa zen. Tutualako azpidistritoak bi Suko ditu, Mehara eta Tutuala. Azpidistritoko administratzailea Tutualan bizi da. Tutualako Sukoak lau herrixka biltzen ditu: Ioro, Pitileti, Tchailoro eta Vero. Biztanleriaren %99ak inguru fataluku-a du ama hizkuntza. Gutxi batzuek tetum-prasa hitz egiten dute.

Familien bizibideak subsistentziatzko lehorreko nekazaritzaren diru sarrerak dira: artoa eta juka. Lehen hezkuntzako eskola bat eta klinika bat ditu. Errepiderako sarrera egokia dute baldintza klimatiko egokietan. Honek ez du nahita nahi ez eragin zuzena komunitatekoen bizitzan bi arrazoigatik: mugitzeko kostuei aurre egiteko baliabide ekonomikoek gabezia, eta okupazio indonesiarrak ezarritako mugimendu errestrikzioak, biztanleriaren jarreran eta pentsaeran marka sakonak utzi zituenak.

Instalazio turistikoa Valusere hondartzan kokatzen da, Nino Konis Santana parke nazionalako herritik 7 kilometrotara, Jako irla sakratuaren aurrean. Sartzeko errepidea oso aldapatsua da, txarto mantenduta dago, ez dago asfaltatuta, eta ezin da erabili euria egiten duenean.

Instalazioa hainbat bungalow dira, materiale tradizionalekin eraikiak, egongela amankomun bat, sukaldea, taldeko pertsonentzat logelak, eta komunak, gutxienezko baldintzetan.



Gainera, eguzki panelak ditu, gobernua orain dauden instalazionetarako gahiegizko indarra duen ezarpen elektriko bat eraiki duenetik erabili gabe dagoena. Tendidoa eusteko makilak jartzeko zabaleraz 30 metro eta luzeraz 5 kilometroko lursail bat deforestatu da, parke nazionalan. Eraikuntzaren ondoren, hainbat zutabe erori dira lurraren bandintza txarreatatik, eta duela hilabte batzuetatik aurrera ez dago argirik. Uste dugu instalazioa etorkizun hurbilean masazko turismorako inbertsio bat egiteko izan daitekela.

Talde honek interes berezia pizten du, aktibitatean besteak baino denbora askoz luzeagoz aritu baita. Horregatik, 5 urteen zeharreko bisiten kontrolaren eta diru sarrera eta gastuen dokumentuak ikusi ahal izan ditugu. Gainera, bilerara etorri ziren pertsonak haien etxeetara buelta ezin izan zirenez, hiru egun horietan zehar modu ia etengabean lan egin ahal izan genuen.

Hasieratik prozezu honen burua den emakumearekin elkarrizketa luzea izan genuen, eta taldearen historia kontatu zigun. Gainera, bilera orokorra dugu talde osoarekin. Taldeak gaur egun 42 kide ditu, 20 emakume eta 22 gizon. Taldea osatu zenetik, 22 gizon eta 3 emakumek utzi dute taldea. Hasieran 115 pertsona zeuden parte hartzen interesatuta, baina 67 kideekin osatu zen gehiengo handia gizonak.

Hasieran zozketa bat egin zen talde bakoitzeko kideen artean lanak banatzeko. Teorian, gizon eta emakume guztiak egiten dute lan bera, baina elkarrizketetan sakontzean, ikusten dugu ez dela horrela, baude la lan batzuk, gutxi (adibidez itsasoko ura bideratu) gizonak bakarrik egiten dituztenak.

Lana modu errotatiboan antolatzen da.

Talde honetan koordinatzaile orokorra emakume bat da, Angelina andrea, aldi berean inizatiba fundatu zuena, eta aitzindaritza indartsua du. Finatzen arduraduna ere emakume bat da, Carmelita andrea.

Angelinak kontatzen digu eskola publikoan zuen maistra lana utzi zuela talde honen osaketaren buru izateko. Taldeko kide izateak ez dio bizitzeko baliabideak izatea bermatzen, izan ere, beste lanetan aritu behar da, taldeko beste kideak bezala. Bera herriko kantina txiki baten jabe da. Kontatzen digu kooperatibaren historia 2002an hasten dela, eta momentu hartan Haburas fundazioarekin kontaktatu zutela. Erabakita zuen ingurugiroaren sektorean lan egitea, ez turismoan, baina ez zen onartu, eta pentsatu zen turismoa aukera hoberena izan zitekela.

Bilera orokorrean, non gehiago handia emakumeak diren, eta bakarrik bi gizon, argi geratzen da haien lana garatzeko duten zailtasuna: zara-



malekua falta da eta ez dago erratzik. Turistak oso zikinak dira hondartzan eta zelaian, ur botillak eta latak botatzen dituzte, eta bungaloven barruan ere zarama uzten dute. Garbiketarako tresnak falta dira: itsasoko ura bildu behar dute garbitzeko, eta hau zailtasun bat gehiago da. Komuna garbitzeko erabiltzen den ur tankea apurtuta dago eta etengabe bete behar da. Galdetzen dutu errotazioa bakarrik taldeena den, edo baita lanetarako ere, eta galdera erantzunik gabe geratzen da.

Planteamendu orokorraren bize-koordinatzaileak adierazten du garraio-bideak falta direla. Eraikin berria (jantoki berri bat non turistak aulkietan eseri ahal diren, lurrean eseri beharrean) eta bertan behera utzitako etheen konponketa geldituta daude materialeak ezin direlako garraiatu. Materiale hauek Tutualan daude eskura. Batzuek erosten dituzte, eta beste batzuek bilatzen dituzte. Turistak tokira helzten dira beraien kabuz (batez ere oinez etortzea aukeratzen dute).

Hizkuntza-oztopoak daude janaria zerbitzatzan dutenean eta turistekin tratatzen dutenean. Ondoko irlarako garraioa gizonak egiten dute. Lo-



gistikako burua berbera da beti, ez da txandakatzen. Antolatuta dauden lau taldeetatik, hiru gizon dira eta emakume bat.

Araozak daude urarekin fruta eta barazkiak garbitzeko. Herrian garbitu behar dituzte, eta garbituta eramán, eta modu honetan gutxiago irauten dute. Zailtasunak dituzte kontserbatzeko. Arropa bera erabiltzen dute sukalderako eta jantokirako. Ez dute urik arropa garbitzeko. Eguerra erabiltzen dute sukaldean, hautsa eta zikinkeria dago ondorioz, eta



airea eman behar diote suari, ondorioz ere hautsa altxatuz, eta janaria zikinduz. Ez dago segurtasunik. Asko izerditzen dute sukaldean, arnasa hartzeko zailtasunak dituzte, eta begiek negar egiten diete –hau lurretik altxatuta dagoen sukalde bakarra da, gainalde zabala du, non sua jartzen den (hainbat suk funtzionatzen dute aldi berean, hainbat janari batera prestatzeko) eta lapikoak-. Beraien etxeetan, sukaldea berdina da, aireatzeko zailtasu bereberekin. Egurra erraz aurkitzen da eskualde honetan, eta sutegiak baino azkarrago funtzionatzen omen du. Finantza koordinatzaileak esaten du formakuntza berezia falta zaiola, eta kalkulagailu bat. Gainera, sukaldeaz eta garbiketaz ere arduratzen da.

Taldeko koordinatzailea kezkatzen da beti ekarri behar duelako ura iturritik, herritik 500 metrora inguru mendian gora, herritik 7 bat kilometrotara (bide hori bera egin genuen guk instalazioetara jaitsi ginenean, baina kotxez eta janaria garraiatzen). Turista gutxi badaude, ez da ezer gertatzen, baina, aldiz, asko daudenean, tokatzen zaion taldearentzat lan askoz gehiago dago. Taldeko kideek egin behar dena egiten ez dutenean, zigor neurriak daude. Etorri ez direnen zerrenda egiten da, eta azkenean, ebaluazio bat egiten da eta etorri ez direnen soldata jaisten da.

Jantokiko teilatuaren zati bat aldatu behar da, euria egiten duenean ura sartzen baita. Koltxoiak zaharkituta daude, eta aldatu beharko gennituzke. Saguek -ezohiko tamainakoak- jan dituzte.

Bakarrik instalazio honetan ikusten dugu diru sarreren kontrol argi bat, nahiz eta azken denboraldian bisitarien kontrola bertan behera utzi den.

Datuek erakusten digute 2007 eta 2010aren artean errendimendua igotzen joan dela. 2008, 2009 eta 2010ean beste jabe baten zentru bat eraikitzen hasten dira, Parke Nazionaleko funtzionario bat dela jabe. Instalazio hau komunitatearen ondoan dago. Informazio kartel bat du hondartzako sarreran, non turismo komunitario gisa iragartzen den, baina ez da. Adierazten digute instalazio hori dagoenetik errendimendua jaitsi dela. Leihakortasun arazo bat nabarmentzen dute.

Emakume batek, Felicidad, jantokian zerbitzatzen duena, beste arazo bat gehiago aipatzen du: jantokian esertzeko beharrezko ekipamendua falta da (aulkiak). Turista batzuei ez zaie gustatzen alfonbretan eta kojinetan esertzea. Beste arazo bat dago: zapaian narrastiak bizi dira, tokeak, eta ondorioz zikinkeria jausten da mahaien gainean. Turista batzuek kafeak eta janaria eskatzen dute irlara joateko, eta behin baino gehiagotan ordaindu gabe joaten dira. Arrantzaleek, irlara eramaten dituztenek, estaten dute haiei ere ez dietela ordaindu. Hainbat alditan



gertatu da, eta beti izan da 1. taldea arduradun zegoenean. Turistek beraien janaria ekartzen dute, sukaldeko tresnekin laguntzen diete, eta ez diete ordaintzen. Ez dute batere errespeturik laguntzen dietenekin.

Ur gabeziaren ondorioz komunetan itsasoko ura erabiltzen dute, eta turista batzuek dutxatzeko erabili dituzte eta haserretu dira, bai eta tankeak apurtu ere. Turistek jantokiko teilatua kanpotik ikusten dutenean, polita dela uste dute, baina babesik ez duela ikusten dutenean, geroago bueltatuko direla esaten dute aitzaki moduan, baina ez dira bueltatzen.

Kide guztiek dituzte beste lanak, batez ere nekazaritzazkoak (artoa, anana, etab. hazten dute) Uzta ona dagoenean, produkzioaren zati bat saltzen da; bestela, beraien autokontsumorako gordetzen dute.

Hondartzan ezarritako arrantzaleen erakundearekin erlazio ona dute: turistei zerbitzatuko dieten arraina erosten diete. Arraina erosteko dirurik ez badute, turistek berek erosten dute, eta haiak sukaldatuko dute. Gainera, arrantzaleek Jako irlara egiten dituzte txangoak turistak eramateko.

## Turismo Komunitarioko Beste Esperientziak Timorren

Interesgarria da esatea emakumeak direla artisautza produktuak egiten eta saltzen dituzten gehienak. Adibide Moubarako hondartzan dauden artisautza postuak ditugu, gaur egun turismora zuzendutako eta kooperazio portugesak konpondutako taberna bat duen gotorleku hollandar baten aurrean kokatuta. Doña María-k saskigintza produkzioa zuzenean saltzen duten emakume artisau talde batzuk koordinatzen ditu duela hainbat urte hamarkada. Emakume artisau timortarren artean erreferente bat da, haien lana antzinako tradizioa da, emakumeek egiten dute, eta ezagutza batzuetatik besteetara pasatzen da. Mariak kontatzen digu «etxera eraman zuen emakumeen eta gizonentzako lan berdinasunaren eztabaida, eta emakumeek saskigintzan gehiago lan egingo balute, gizonek sukaldatu ahal izango dutela, eta lan banaketa hau jadanik ematen da». Komentatzen digu gainera, momentu hauean, teknikak modu formalagoan irakastea lortu dutela.

María Goreti-k, **Koperativa de Bonecas de Atauro-ko** zuzendaria, artisautzaren produkzioan garrantzi handieneko kooperatibetako bat, kontatzen digu kooperatiba 2009an hasi zela, 20 pertsonekin, eta gaur egun osatuta dago eta 40 pertsona bitzen ditu, non gizon bakar bat dagoen. Kooperatiban panpinak, karpetak, potsak ohialekin, eta hauen





gainean irudiak josten dira. Hasieran diseinatzaile suitzar batek egiten zituen diseinu guztiak, nork proiektua bultzatu duen hasieratik, baina gaur egun jadanik kooperatibako bost emakumeei eman zaie forma-kuntza helburu honekin. Orain badira produktu berriak diseinatzeko gai.

**La cantina Carabela** Dilitik herrialdeko ekialdera doan errepidean kokatutako jatexte txiki bat da. Sukalde bat, egongela bat eta itsas ondolan mahai batzuk ditu. 2008an sortutako emakumeen kooperatiba batek kudeatzen du, eta kooperazio espainiarraren laguntza izan zuen. Doña Correa, kooperatibako bize-koordinatzaileak, esaten du gaur egun 22 emakumek osatzen dutela. Hasieran, eskualdeko jatetxe bakarretako bat zen. Kooperatiba honen arrakastaren ondorioz, zonaldean beste tabernak eta jatetxe txikiak agertu dira, baina bultzaketa enpresarial honen alde txarra da eskaintza gehiegi dagoenez baduridu diru sarrerak jaitsi direla. «Orain salmentak ez doaz ondo, eta eskaintza aldatu dugu, bakarrik janari tipikoa eskaintzen dugu, Katupa izeneko», esaten du Doña Correak. Turistei janaria gustatzen zaie, gaur egun familia bakoitzaren sukaldean prestatzen dena, jatetxeko sukaldea erabili gabe utziz.

## **Kooperativa Natureza, Haburas GKE, Dili**

Kooperativa Natureza entitate txiki bat da, identitate juridikorik gabe, Haburas fundazioaren antolaketa egituraren barruan dagoena. Haburas-ek sustatzen dituen turismo komunitariorako instalazioak erabili nahi dituzten bezeroekiko harremanak kudeatzen ditu, ez baitu modu eskusiboan egiten. Hortaz, kanpo lana osatzeko, ezin genuen ahaztu komertzializazio eta harreman funtzio hau aurrera daraman taldearekin kontsulta bat egitea. 6 pertsonak osatzen dute, horietatik bakarrik 1 da gizona, eta mantenimendu lanen arduraduna da.

Kooperativa Natureza Haburas GKEan jatetxea aurrera eramateko arduraduna da, zeinek eguneko 20 eta 40 bezero artean jasotzen dituen eguerdiko jatordurako, eta catering-a prestatzen du kanpoko eskaerarako. Gainera, tokiko janari eta artisautza produktuak saltzen ditu, denak emakumeen erakundeek egindakoak, helburu honetarako jarritako denda txikian. Gainera, laguntza logistikoa ere eskaintzen du, inizatiba turistikotarako "erreserba zentral" gisa funtzionatuz, ikerketa honen helburu direnak, eta CIDAC proiekturen onuradun zuzenak, eta pakete turistikoa prestatu.

Bilera luze bat izan genuen aktibitate guzti hauek aurrera eramaten ari diren pertsonekin, guztiak emakumeak, eta interbentzio alden garape-



naren sustatzaileekin, hiru gizon, eta Haburaseko kide fundatzaile batekin, kooperatibaren finantziazioan lagungarri dena.

Planteatzen den lehen eztabaidagaia da zein neurrian den Kooperativa Naturaleza independientea. Orain arte duela denbora batean zehar uste izan da lehenbat bat dela Naturaleza-ri autonomia bat ematea, eta orain arte ez da lortu izan. Hortaz, GKEaren edozein proiektuk jasotzen duen bezalako tratua jasotzen du. Ez dauka legezko entitate propiorik, baina banatuta kudeatzen da, eta bere diru sarrerekin jabetxean zerbitzatzen duten bi emakumeen soldata osoak ordaintzea lortzen dute. Dendataz arduratzen den emakumearen soldata, baita turismoaren inguruko aktibitateetaz arduratzen denarena, Haburasek finantzatzen du.

Turismo komunitarioaren sustapenean egin diren pauso txikiak deskribatzen dizkigute. Timorreko merkaturak kokatutako enprekin kolaborazioak (Timor Adventure) ondorio onak ekarri ditu, Naturalezak egin zuen intermediazio lana erabili eta ordaindu bait zuten. Salatzen dute hortik aurrera hainbat alditan haien bidea ez zutela erabili nahi izan, eta zuzenean proiektuetara jo zutela.

2012an bost bidaiak-pakete antolatu dituzte, eta momentu honetan beste bat prestatzen ari dira japoniar talde batekin batera.

Bidaien sustapen eta antolaketa aktibitatearen arduraduna den emakumeak Balin jaso du formakuntza, CIDAC proiektuari esker. Ideia onak ditu, baina badirudi ez direla gauzatzen kooperatibaren autonomiarik buruzko argitasun faltagatik



## ONDORIOAK

Ikerketa honetarako erabili diren turismo komunitario esperientzien garapen maila oso desberdina da, kasu batean, kanpo lana hasi genuenean, ez zeramaten funtzionamenduan ezta hiru hilabete.

Adieraz dezakegu garatuen dauden esperientzetan, denboran iraupenaren arabera, emakumeen parte hartzea indartu dela, bai kooperatibetan geratzen diren pertsona kopuru handiena direlako, bai betetzen duten errolagatik. Bereziki Tutuala komunitatearen kasuan, non koordinazio, finantza eta logistika lanak talde barruan emakumeek betetzen dituzten. Seguru aski ez da kasualitatea prozesuaren aitzindari lehen eta orain emakume bat izatea.

Aktibitatearen funtzionamenduan dauden gabeziak nabarmentzeko ardura emakumeena da, norztuek turistaren aurrean ardurak zuzenago hartzen dituzten.

Emakumeek betetzen dituzten eginkizunak, orokorrean, etxean egiten dituzten berberak dira. Edozein kasutan, proiektu turistiko baten kudeaketaren ezaugarri diren oinarritzko lanak dira. Janaria prestatu, jantokian zerbitzatzea, eta garbiketa. Emakumeek eskaintzan eta zainketan duten errol tradizionalan aldaketarik ez dagoela esan dezakegun ere (aipatutako salbuespen batzuk kanpo), beraien autonomia eta esperientzia handitzen da. Taldeetan eta kooperatibetan aritzen diren gizonak emakume hauen errola eta gaitasunak argi baloratzen dituzte. Emakumeek lan hauetan beraien gaitasunak hobetzeko egiten duten eskaerak laguntza dauka, eta bultzatuta dago. Turista gehien dagoen lekuan (nahiz eta taldearen esperientzia Turismo Komunitarioaren proiektuan lan egiteko txikia izan), eta baloratzeko ondasuna ezagunagoa den, Moubisseren kasuan bezala, emakumeek lan ez tradizionalak aurrera eraman ditzaten aukerak argiagoak dira, beraien formakuntza, adibidez hizkuntzetan eta gidentzat, aktibitatearen eskura jarritz.

Emakumeek ez dute instalazioen eraikuntzan parte hartu, baina bai bere diseinuan.

Komunitatearen batasuna eta Turismo Komunitarioaren alde elkarrekin egiten dutena proiektuen iraunkortasunerako giltzarria da. Maubissen da berriz emakume gazte eta gizon gehien parte hartzen duten lekua. Batasun baloreak tradizionalak badira ere, eta antolaketa soziala biziki hierarkikoa bada ere, emakumeak ez dira kanpoan geratzen, aldiz, aktibitatearen funtzionamendu onerako oinarritzkoak dira.



Aktibitate turistikoaren beharrak asetzeko antolaketa modua, hau da, talde eta kooperatibak, txandakakoa da. Hau da, taldea lanen arabera banatzen da talde txikitik, janaria prestatu, segurtasuna, garbiketa, mantenimendua, denbora tartetan antolatzen dira eta emakumeek aktibitate guztietan parte hartu dezaten ahalbidetzen du. Aipatu den bezala, sistema hau, proiektu turistikoan parte hartzea bermatzen badu ere, eta aldi berean etxeko edo nekazal lanetan aritzea, taldeen artean gatazka sortzen du konpromezuak eta aurretik erabakitako garbitasun estandarrak betetzen ez direnean.

Sukaldean ez dira egokiak, eta emakumeei egiten die kalte gehien, begietako eta arnaseko gaixotasunak eragiten dienez. Ez da hobekuntza bat egon diseinuan arazo hau konpontzeko, eta landa timortarreko sukalde guztietako gela mota tradizionala mantendu da.

Turismoaren inguruan osagarriak diren aktibitateak garatzen dituzten taldeak, esaterako artisautza produktuak egin eta saldu, baita ostalaritza eta pakete turistikoen sustapena, emakumeen erakundeek kudeatzen dituzte, edo emakumeak kudeatzaile zuzen dituzten erakundeek.



Orokorrean, denbora luzean zehar funtzionatu dute, eta izan dituzten zailtasunak zati batean beraien esperientziak izan duten arrakastaren ondorioz agertu dira. Entitate pribatuak agertu dira antzeko zerbitzuak eskaintzen dituzten aldeetan, honekin lehiakortasuna handituz, eta hauek iraupena arriskuan jarritz.



Turisten garraioa helbururaino, sektorearen beste aktibitate bat dena, taldeen eta kooperatiben eskuen kanpo geratzen da. Irlan dauden baliabide publiko eta pribatu gutxiak erabiltzen dira, eta ez ditugu eskura datuak emakumeak lan hauetan integratuta dauden deskribatu ahal izateko.

Nabarmendu da administrazio publikoaren aldetik eta kontsultatu ditugun gizarte erakundeen aldetik turismo komunitariozko inizatibentan sexu-berdintasuna sustatzeko politika bat badagoela, tokiko ekonomien dibertsifikazio bat lortzeko helburuarekin, bai eta iraunkortasun kulturala eta emakumeen parte-hartzea.

Bisitatu ditugun komunitate guztietan dago argi gizonak eta emakumeak lanean eta erabakiak hartzeko momentuan berdintasunez tratatzen direla. Bereziki onurak nora doazen, non jaso diren, emakumeak izan dira seme-alabei irakatsi dietenak. Oso garrantzitsua da emakumeen motibaziorako, "aktibitate turistiko hauetara etorri eta parte hartzen hasi nintzen, eta ikusi nuen gauza asko ikasi ahal nituela (...) Talde honetan parte hartzea oso garrantzitsua da gure etorkizunerako, eta gure seme-alabek eskolara joan ahal daitezen" esaten digute. Emakumeek bakarrik kontrolatzen dituzten etxeko ekonomiak diru sarrera baka-rrak dira.

Emakume asko kontzienteak dira turismo komunitarioaren bidez beraien formakuntza eta gaitasunak hobetzeko aukera dutela. Bere burua bereaien kulturatik kanpoko beste pertsonen aurrean azaldu nahi dute, eta gainera bisitarien ohiturak ezagutu eta haiekin erlazionatu.

Proiektu hauen helburua da baliabide osagarriak sortzea familientzako, eta kontsultatu ditugun talde guztietan esaten da lortzen ari dela. Nabarmena da langabezia jaitsi dela komunitateetan, batez ere emakumeen artean.

Artisautzaren produkzioaren kasuan, saskigintzaren sektorean, lortu da familien barneraino eramatea lanean gizon eta emakumeentzako berdintasunaren eztabaida, eta emakumeek saskigintzan gehiago lan egiten dutenez, gizonak etxeko lanetan aritzen dira gehiago, esaterako sukaldean, nabarmena da lan banaketa hau jadanik ematen ari dela.



Emakumean kontzientek dira Turismo Komunitarioko aktibitatea kudeatzeko gaitasunak dituztela. Hau esaten dute: **“Prest gaude eta toki seguru eta klima osasuntsua dugu turistak jasotzeko gure bungalowetan gau batzuk pasatzera”**.





# 1 ATXIKIA

## **Kooperativa NATUREZArekin Izandako Bileren Memoria**

Europar projektuko kideek parte hartzen dute. Parte hartzaile bakoitzak kooperatiba barruan duen funtzioa azaltzen du.

Ati, Miria Aterce. Denda zaintzen du. Kooperatibaren kudeaketa, Naturaleza eta Haburasen kokatuta dagoen jatetxearekin erlazionatutako edozein aktibitate.

Rinaldo, proiektuaren kide moduan, Naturelean hartzen du parte, eginkizun zehatzetan (garbiketa, beste GKEekin kontaktua) eta Timor Adventurerekin harremana mantentzen du.

Aju, projektuko kide moduan, hedapen eta sustapen materialen arduraduna da, eta Naturelean turistei eskaintzeko bideak eta tokiak zehazteko eta saltzeko arduraduna da. Denda zaintzen du eta hornitzaileekin dago kontaktuan denda hornitzeko. Denda erdi-abandonatuta dago. Ez daude ia produkturik, bakarrik jaki batzuk, artisautza erdi-abandonatuta dago.

Augusta Soarens de Deus-ek jatetxean lan egiten du, sukaldatzen du, platerak garbitzen ditu, bezeroak jasotzen ditu, erosketa zerrendak prestatzen ditu, eta bakoitzak jaten duena erregistratzen du.

Jatetxea autozerbitzu motakoa da. Janari platerak mahai luzeetan daude jarrita, eta plater hutsak, bakoitzak nahi duen moduan bete dituzan. Garrantzitsua da hau idaztea, bakoitzak hartu duenaren arabera prezio bat edo bestea ordainduko bait du.

Gil-ek, Moubisseko projektuko sustatzaile, eta animatzaile komunitario, turistentzak aktibitateak eskaintzen ditu. Baldintzak prestatzen ditu turistak jasotzeko, Naturelezak bezala.

Alex, Natureza kooperatibarekin erlazioan. Kafe eta te hoberena egin eta zerbitzatzen du, ontziak garbitzen ditu, jatetxeko gunearen garbiketaz arduratzen da.



Antonio de Limas, ez da proiektuaren taldeko kide, Haburasen fundatzailea da eta Naturalezarekin kontaktuan dago, hemen Haburasen bezala laguntzen du hainbat zerbitzutan, finantzetan, etab.

Naturalezaren aktibitateak hurrengoak dira:

- 2011an hasi zen jatetxe bat kudeatzen du, eta hiru zerbitzu gehiago eskaintzen ditu:
  - Bidaia-paketeak
  - Tokiko proiektuei laguntza, emakume taldeek bakarrik martxan jarritakoak, dendaren bitartez (artisautza eta elikagaiak)
  - Jatetxea, bakarrik tokiko produktuak sukaldatzen dituzte, janariak eskaintzen dituzte eguerdian astelehenetik ostiralera. Kafea egunero zerbitzatzen dute, egun guztian zehar. Erakunde batzuek, lehenago erreserbatuz, afariak antolatu ahal dituzte.

Aktibitateak antolatzen direnean, tailerrak, Haburasen kafeak eta teak zerbitzatzen dira.

Pakete turistikoei buruz: lehenago Naturaleza erreserbak egiteko balio zuen, orain edozein pertsonak eskaini ahal du zerbitzua bere koordinatzaile komunitarioaren bidez.

Naturaleza "Bidaia agentzia" moduan erregistratuta dago behin behineko, bi pertsonen izenean (Demetrio eta Gil, biak buruak, lehena tradizioz eta bestea gaur egungo zuzendaria). Orain Haburasen proiektu bat gehiago da, eta ez du legezko entitaterik.

Kudeaketa banatuta dago: 2013ko urtarrila arte, hiru soldata ordaintzen zituen jatetxearen diru sarrerekin, orain bi bakarrik, Alexi Haburasek ordaintzen dio. Ati-k dendaren arduraduna ere bada.

Naturalezak eskaintzen dituen zerbitzuen artean ikerketa sozialak egin nahi dituzten pertsonentzat laguntzak daude, ikasleentzat eta Haburasek lan zehatz batzuk egiteko etortzen diren irakasleentzat. Haburasek Naturalezara zuzentzen ditu, lagundu eta gidatu ditzan.

Garraiorako Timor Adventure agentzia kontratatzen dute, harreman honek oso ondo funtzionatzen omen du. Timor Adventure hiru leku hauetarako bidaiak antolatzeaz arduratzen da. Behin edo, Timor Adventurek bidaiak egin ditu Moubissera Naturalezarekin kontatu gabe.





Beharrezkoa da Timor Adventurekin akordio bat sinatzea turistak jasotzeko. Koordinazioa hobetu behar da, eta Naturelezaren partetik promozioa egotea behar dugu.

Natureleza indartu behar da. Momentu hauetan dauden langileek ezin dute operadore turistikoko eginkizuna bete. 2007 eta 2010 artean Haburasen zerbitzuak saltzeaz arduratzen zen pertsona bat zegoen.

Jatetxeaz arduratzen diren bi emakumeei lana gustatzen zaie, baina oso nekagarria da: 7.00etatik 17.00etara lan egiten dute. Eskari asko dagoenean, enkarguak, kateringa, oso nekagarria da. Kanpoko pertsonak kontratatu ditzakete, behar dutenean. Edozein kasutan, orain bertan ere pertsona bat gehiago beharko lukete.

Orain arte Naturelezak bost bidaiapakete antolatu ditu 2012an. Gure estantzia zehar aurkitu genuen japoniar talde hau da Naturelezak bere kabuz antolatu duen lehen taldea.



Talde hau 2012ko abenduan hasi zen antolatzen, eta orain osatzen da. 2013ko martxoa. Suzuki, japoniarren taldearen arduradun, bidaiak Aju-rekin negoziatu du zuzenean.

Jatetxea interes turistikoko gunea da.

Gilek esaten du ez dagoela kooperatibarik, ez dakite zer egin behar duten kooperatibistek.



Ajuk esaten du kooperatibak kideak izan behar dituela, ekarpen bat ordaintzen dutenak, eta onura taldeak edo komunitateak diren kideen artean banatu behar direla, Laloran, Tutuala, Maubisse, etab., artisau taldeak, Moubisseko emakume taldeak,...

Haburasek turismoaren alorrean zerbitzuak eskaini behar ditu, formakuntza esaterako, herrialdeari buruzko hitzaldiak, genozidioaren historia edo okupazio indonesiarrari buruzkoa.



## 2 ATXIKIA

### **Turismo Arduraduna Eta Turismo Komunitarioari Buruzko Seminarioa**

2013ko martxoaren 4, 5 eta 6a, Timor Leste

Federica Carraro eta Francisco Calderón-en relatiro, SODEPAZ

Tailerrean 35 pertsona inguru parte hartzen dute (24 gizon eta 11 emakume).

Gehienak Moubisse, Tutuala eta Moubarako turismo komunitarioko proiektuetako taldeetako kideak izan ziren, Haburasek bultzatutako TK proiektuak, bai eta Atauroko artisautza kooperatibetakoak. Diliko gornuz kanpoko hainbat erakundetako kideek parte hartu zuten, eta administrazio timortarreko kideak.

Tailerra Antonio Limas-ek azaldu zuen, Haburaseko zuzendari interinoa, Hitzaldiaren ardurapean dagoen antolakuntza timortarra.



Partaideen etorrera eskertzen du eta espero du alor honi buruz guztiek dituzten ezagutzak azaleratzea, hau da Turismoaren eta Turismo Arduratsuen alorrean. Haburas, GKE gisa, ingurugiroaz eta garapen ja-



sangarriaz arduratzen da. Hitzaldian dauden hiru taldeak deskribatzen ditu, komunitario motako hiru turismo proiektu eramaten dituzten taldeak. Espainiako bi kideak azaltzen dizkigu, Federica Carraro eta Francisco Calderón, eta turismoa ekonomiarako sektore garrantzitsuenetako bat duten herrialde batetik datozela kontatzen dute, eta topaketa hau emankorra izatea esanez bukatzen du.

Geroago Ekialdeko Timorreko Gobernuko Turismo, Merkataritza eta Lanerako Estatuko Sekretariak hartu zuen hitza. Honek Haburasen gonbidapena eskertzen du workshop hau irekitzeko.



Autoenpleguaz hitz egiten hasten da, eta nola formakuntza giltzarria den. Herrialde honek giza-baliabideak behar ditu, aberastasuna izan baduelako, baina ikusi behar da nola garatu ahal den. Haburasek bide hau hasi zuen jadanik. Turismo Komunitarioa oso garrantzitsua da, eta komunitateak aktibitate honen jabetza eduki behar du. Beharrezkoa da formakuntza sakontzea Turismo Komunitarioaren inguruan. Indonesiako Unibertsitateak turismoaren alorrean eskaintzen duen formakuntza aipatzen du, eta kolaborazioa eskatu zaiola Timorren formakuntza eman dezan, eta turista gehiago erakartzeko teknikak. Planteatzen du azpiegiturretan inbertsioak eginez, esaterako errepideetan, turismorako oso egokiak diren tokian sustatu daitezkeela. Haburasek gobernuari lagundu behar dio sektore hau sustatzeko eta autoenplegua bultzatzeko Ekoturismoan. Guztien ekarpena behar da, gizarte zibilarena, koopera-



tibena, gobernuena, turismoak funtzionatu dezan. Bisita gehiago nola erakartzea puntu garrantzitsuenetako bat da, hau da, promozioa. Hau guztia komunitateekin kontaktu gabe egiten bada, porrot egingo da. Atzerriko turistengan pentsatu behar dugu, baina bai eta barruko turistengan.

## Metodologia

tailerraren metodologia aurkezpen motzak eta debate luzeak izan ziren, gai bakoitza taldetan landuz, sesio bakoitzaren azkenean ondorioak amankomunean jartzen ziren.

Hurrengo deskribatzen diren dinamikak eraman ziren aurrera parte hartzeko:

**Dianaren jolasa.** Hiru paper zatitan bakoitzak hitzaldiari buruz dituen espektatibak, bakoitza paper bakoitzean, eta horman itsasten dira, to-paketaren ondoren dianan kokatzen dira, ebaluatzeko, bere fitxa erdigunetik gertuago jarritz formakuntza helburu bakoitza bete noraino bete



den neurriaren arabera, eta erdigunetik urrunago neurri txikiagoan bete bada.



**Nor da turista? Denbora edo dirua soberan duena.** Pertsona bakoitza, talde bakoitzeko kidea, pertsona honek dituen ezaugarriak idazten ditu, gutxienez hiru.

Orri bakoitza taldearen bozeramaleari ematen zaio, honek banaka irakurtzen ditu eta paper batean idazten ditu. Behin taldeko kide bakoitzaren erronda amaituta, bost aukeratuko dira, taldeare partetik batasun handiena izango dutenak.

7 pertsonak 4 talde antolatzen dira, definizio honi buruz beraien iritzia emango dutenak, eta bigarren galdera bati erantzungo diote:

Zein turista motari eman ahal/nahi diogu zerbitzua? Galdera osagarria: zein turista mota nahi dugu eta zein turista mota ez dugu nahi.

Taldeko lana ordu bat eta erdiz, eta lana amankomunean jartzen da.

Arratsaldean SODEPAZen bideoa proiektatzen da, Turismoa Palestinan, non ATG-ak (Alternative Tourism Group) Turismo Arduratsuaren arloan bidaiak antolatzen dituen GKEak bere herrialde okupatuaren egoera erakusten duen. Bideoa egokitu zen tetun-era itzulita, bi itzultzaileek irakurrita, hitzaldi osoaren zehar kolaboratu zutenak, bi sendagile timortar, Kuban ikasitakoak, eta Timorreko Osasun Ministeritzaren lanpostua itxaroten ari zirenak.

Erreportai honen proiektzioaren bidez hurrengo galderaren inguruko talde lana dinamizatzen dugu: Zer da turista bat guretzat? Kolaboratzaile espainiarrek ematen diguten oinarriko definizio batetik abiatzen gara: turista Timorreko edo beste leku bateko pertsona bat da, ez duena zertan dirurik izan, baina bai denbora.

7 pertsonako 4 talde antolatzen dira, definizio honi buruz bere iritzia eman dezaten, eta bigarren galderari erantzungo diote: zein turista mota nahi dugu, eta zein turista mota ez dugu nahi.

Talde lana ordu eta erdi batean zehar eta amankomunean jarri.

## **Ikus-entzunezko Materialea.**

SODEPAZen bi bideo proiektatzen dira eta Turismo Arduratsu baten aldeko Foroaren bideo bat turismo komunitarioaren eta bidaiaria solidarioen gaiarekin erlazionatuak, zehazki hurrengoak:

Ekuador emakumeen eskutik

Turismo solidarioa Palestinan



## Turismo komunitarioa Nikaraguan

Kontaketa hauei erabilitako aurkezpenak atxikitzen zaizkio.

Programa.

Aurreikusitako sesiones hauek izan ziren:

1.- SODEPAZen eta eskura dauden materialen aurkezpena.

2.- Turismo alternatiboa (masazko turismoaren alde) irudikatzeke termino desberdinak, turismo jasangarria:

Aurkezpen laburra, atxikita

3.- Tokiko ondasuna, "erakusteko" balore gisa, akordio amankomuna, Nori interesatu ahal zaio baloratzen dugun hori?

SODEPAZen bideoa proiektatzen da, Turismoa Palestinan, non Turismo Arduratsuaren bidaiak antolatzen dituen GKEak, ATG (Alternative Tourism Group), bere herrialde okupatuaren errealitatea erakusten duen. Bideoa egokitu zen tetunera itzulita, bi itzultzaileek irakurrita, hitzaldi osoaren zehar kolaboratu zutenak, bi sendagile timortar, Kuban ikasitakoak, eta Timorreko Osasun Ministeritzaren lanpostua itxaroten ari zirenak.

4.- Erakarri nahi dugun publiko mota eta nola erakarri. Turistagai tipologia, turista arduratsua.

Erreportai honen proiektzioaren bidez hurrengo galderaren inguruko talde lana dinamizatzen dugu: Zer da turista bat guretzat? Kolaboratzaile espainiarrek ematen diguten oinarriko definizio batetik abiatzen gara: *turista Timorreko edo beste leku bateko pertsona bat da, ez duena zertan dirurik izan, baina bai denbora.*

Aurreko eguneko ondorioekin, hau da, nahi dugun turista motaren alde onak eta nahi ez dugun turista motaren alde txarrak, taldeak berrantolatzen dira. Aldi honetan taldeak banatzean erabaitzen dugu 3 gizon talde eta 1 bakarrik emakumeekin, eztabaidatu dezaten, eta turisten-gandik nahi ez ditugun konportamenduak sahiesteko irtenbideak eskaini ditzaten.

Ondorioak amankomunean jartzeko interkulturalitateari buruzko eztabaida sakona izan zen. Interbentzio asko egin ziren berezko kulturari buruz, tradizioei buruz eta ohiturei buruz. Nabarmentzen da emakumeen taldea turistekiko errespetua planteatzen duen talde bakarra dela. Kolaboratzaileek tokiko ohiturei buruzko aspektu batzuk aurkezten di-



tuzte, elikagaien egosketari buruz, gure arreta erakarri zutenak, eta eztabaida berriak piztu zituztenak.

Turismo komunitarioari buruzko beste bideo bat proiektatzen da, SO-DePAZek egindakoa Nikaraguan, tetunezko azpitoluekin.

Bideo hau izan zen arreta gehien erakarri zuena. Nikaraguako nekazariekin neurri handian identifikatu ziren, beraien nekazaritza lanak mantendu eta ez bakarrik aldi berean turistei zerbitzua ematen, baita lan hauek ere erakarpen turistikoa bihurtu ere egiten zutelarik. Ikusgarria izan da proiektioarekin erakutsi zuten arreta eta enpatia.

5.- Turismoaren aztarna ekologikoa: lurralde baten jasangarritasuna, aireko garraioaren inpaktua ingurugiroan.

Lurralde baten jasangarritasunari buruzko aurkezpen laburra eta ingurugiroari buruzko gaiak. Hainbat kasu aipatzen dira, Espainiakoa esaterako, kosta mediterranearra, hirigintzako espekulazioa, ur-erreserben hontaketa, etab. eta Veneziako kasua ere, Italian, 70 000 bizanleko hiri-monumentua, hileko milioi bat turista baino gehiago erakartzen dituen. (Elikagaien, jatetxeen eta garraioaren prezioan duen ergina).

Bereziki aireko garraioa aipatzen da, turista atzerritarrek Timorrera heltzeko duten garraibide bakarra delako.

Aurkezpena atxikian

Ondoren beste talde dinamika bat antolatzen da, adibide modura turismo komunitarioan lan egiten duen komunitate timortarra jarritz. Hau aurreko asteko kanpo lanean bildu zuten kolaboratzaileek, taldeak nola konpontzen zituen: 4 talde sortzen dira, 3 gizonetako eta emakumezko 1 orain ere.

6.- Turismo komunitariozko esperientziak

Laburpen moduan SODEPAZen beste bideo bat proiektatzen da, Ekuadorren emakumeen eskutiko Turismo Komunitarioaren ingurukoa, itzultzaileen kolaborazioarekin. Haiei esker parte hartzaileek elkarrizketak beraien hizkuntzan jarraitu ahal izan zituzten.

Jarraian beste talde dinamika antolatzen da, aurreko egunetan zehar deskribatu ahal izan diren tokiko errealitateak tratatzeko, eskema hurrengo eskemaren arabera: zer dugu, zer falta zaigu, eta nor arduratu daiteke hau konpontzeaz.





## Balorazioa:

Parte hartzaileak formakuntza maila desberdina zuten, eta honek metodologia desberdina eskatzen zuen, parte hartzera gehiago zuzendutako metodologia, eta taldeko lanekoa, irakasteko aurkezpenak gehienez 20/25 minutura mugatuz.

Hizkuntzaren oztopoari esker parte hartzaileek beraiek eduki zuten protagonismo gehiago izan zuten, itzultzaileek, lan bikaina egin zutela, gutxiago hitz eginez.

Talde lanak oso aberatsak izan ziren, eta hauei esker pertsona guztiek hitz egin eta beraien iritzia azaldu ahal izan zuten. Antolatzaileen komentarioen arabera, parte-hartze aktiboa bikaina izan zen.

Hitzaldi honek etengabeko egokitze lana eskatu du, hasieratik aurreikusitako metodologiaren egokitze lana, neke apur bat edo arreta galera txiki bat ere nabarmentzen zen bakoitzean.

CIDACi esker, hitzaldiaren aurreko astean egindako bi edo hiru eguneko bisitak Haburasek bultzatutako Turismo Komunitariorako proiektu bakoitzean, erabat erabilgarria izan zen, kolaboratzaileei hitzaldiaren edu-



kia arlo honetan Timorreko tokiko egoerei eta errealitateei egokitzeko funtsezko informazioa eman bait diote.

Gai batzuk ezin izan ziren sakon eztabaidatu, bereziki Turismo Komunitariorako egokiak diren energia berriztagarriak, partaideen ezagupen faltagatik.



Proiektatutako dokumentalei azpitutuluak jartzea edo beste kasu batzuetan tetunerako itzulpenak irakurtzea ere erabat erabilgarria izan zen. Baliabide honek oso harrera ona izan zuen publiko mota honek. Dokumental bakoitzak 12 bat minutu irautea uste dugu iraupen egoki bat dela, beste kasu batzuetan erabiltzeko.

Haburasi eta parte hartu zuten GKE batzuei emandako materialeak (FTRak -Foro de Turismo Responsable- eta SODEPAZek argitaratutako liburuak eta SODEPAZek egindako dokumentalak) asko baloratu dira. Partaideen ordenagailuetan zenbait kopia egin behar izan ziren, eramandako originalak nahikoak ez zirelako.

Haburasek jarri zuen arreta ostaturako eta elikadurarako bikaina izan zen, eta hitzaldia egin zen lekua eraikin ezin honea izan zen, zeinek lanerako eta kontzentrazioarako giroa eskainzen den.

### **Eztabaida Taldeen Ondorioak.**

Ondoren taldeko lanaren ondorioak biltzen dira, gordinean, geroagoko hausnarketa eta diagnostikoetarako kontutan har daitezten.

#### Nor da turista?

- Denboraldi laburrean bidaiatzen duen pertsona da
- Kanpotik datorren pertsona da (atzerritarra)
- Beste herrialde bateko kultura aurkitzen duena
- Abentura bilatzen duena zerbait berria ezagutzeko
- Bere nahien arabera gastatzeko dirua eta denbora duena
- Leku batetik bestera mugitzeko denbora duen pertsona da, artea, historia, natura ezagutzeko eta horrela pozik egoteko eta dibertsioa izateko, eta kontzientzia handitzeko.
- Abentura, kirola, sukaldaritza, kultura, medikuntza naturala
- Ikerketa egiten duen pertsona da
- Leku batetik bestera doana
- Zerbat jakin/ezagutu nahi duena
- Bere oporrak/denbora pasatzen dituena



- Lana beste leku batetan duten atzerritarrak
- 24 ordu baino gehiagoren zehar bidaiatzen dutenak, bidai oso laburrak
- Ibilbide antolatuak egiten dituztenak
- Ikerketa konparatiboak egiten dituztenak
- Besteen identitatea jakin nahi dutenak (Kultura Historia)
- Leku bereziak bisitatzen dituztenak
- Turistak denok gara!!!!
- Aktibitate bat leku batetik bestera egiten dutenak
- Leku turistiko batera bidaiatzen duten pertsonak
- Ikerketak egiten dituztenak, ahal badute beste herrialde batean
- Prestatuta dauden pertsonak.
- Bidaia laburra
  - Luzea (3. taldea)
  - Laburra + luzea (2., 4., 1. eta 3. taldeak)

Turista timorreko edo beste leku bateko pertsona da, dirurik zertan eduki ez duena, baina bai denbora.

#### Zein turista nahi dugu?:

- Bai barruko eta bai kanpoko turistak
- Egorera naturalera egokitzen dena
- Timorreko kultura errespetatzen duena
- Turista komunitarioa
- Turista solidarioa
- Komunitateari laguntza ematen diona
- Komunitatearekin bizi dena



- Kultura errespetatzen du
- Natura errespetatzen du
- Komunitatearen egoera ulertzen du
- Timorri buruzko informazio positiboa sustatzen du
- Hartu-eman arduratsua egiten duena
- Pentsamendu eta ezagupenen hartu-emana egiten duena
- Esperientzia konpartitzen duena
- Zintzotasuna eta konpromezua erakusten dutenak
- Komunikazio ona dutenak, laguntasunez
- Egoera ulertu eta honi egokitzen zaiona
- Dazkan trebetasunak konpartitzen dituena
- Komunitatearen ospakizunetan eta aktibitateetan parte hartzen duena.

Zein turista ez dugu nahi?:

- Informazio argia ematen ez duten turistak, bihar datoz eta gero ez dira etortzen, 10 direla diote eta gero 5 dira,... ez dira formalak
- Timorreko kultura errespetatzen ez dutenak
- Natura, hondartza, hondatzen dute
- Mozkorrak eta arduragabeak direnak
- Turismoaren negozioa
- konpromezurik gabe
- komunikazio txarra komunitatearekin
- ez dute kultura errespetatzen
- harroputzak



- eskaini ahal duguna baino gehiago nahi du
- ezagutza konpartitzen ez duena, ospakizunetan parte hartzen ez duena
- egokitze falta
- Kulturarekiko errespetu falta, ingurugiroa, osasuna eta hezkuntza (droga, HIESA)
- arauak betetzen ez dituztenak
- inbertitzen ez dutenak, ez du tokiko komunitatean gastatzen
- leku turistikoak sustatzen ez dituenak

#### Zer egin behar du turistak?

- Komunitateari egokitu
- Kontzientzia izan ingurugiroa, kultura, hezkuntza eta osasunarekiko
- Arauak jarraitu (arauak hemengoak dira, eta gidak ere)
- (Balin bikiniarekin bainatzen dira, baina hemen ezin da joan bikiniarekin herritik)
- Dirua eduki behar dute, ezin dira komunitatearen gainetik geratu
- Beraien ezagutzak konpartitu behar dituzte
- Bisitatzen dituen lekuak sustatu behar ditu beste toki eta pertsonentzat

#### Zer esan nahi du kultura errespetatzea?

- (areka edo betel hostoak murtxikatzen ikustea nazka ematen diela erakusten dutenean, ezkontzen tradizioak errespetatu behar dituzte, bufaloen eskaintza bezala)
- Zer da Turista komunitarioa? Errespetatzea, parte hartzea eta konpartitzea da (erritualak, janaria,...)
- Komunitatean dauden posibilitateak erabiltzen dituenak eta komunitateko gauzak aukeratu eta erosten dituenak



### Nola sahiestu ahal ditugu turistengandik nahi ez ditugun portaerak

- Herraldeko eta tokiko legeak indartu
- Gida profesionalak eduki
- Arauei buruzko informazioa eman hedabideen eta kartelen bidez, edo tokian.
- Harreman ona ingurugiro, Kultura eta Turismoko Ministeritzekin
- Turistekin harreman onak sortu (komunikazio ona turistekin)
- Herrialdeko arauak bete
- Arreta ona turista pozik egon dadin

### Emakumeen Taldea

- Kultura indartu eta mantendu
- Turismoaren inguruko araua egin behar da
- Informazioa eta formakuntza behar dira
- Turistek nahi dutena errespetatu behar da
- Informazioa haiek etorri baino lehen eman behar da
- Behar dituen zerbitzuak adierazi behar ditu turistak
  
- Arauak egin behar dira
- Segurtasuna eta aktibitate guztiak monitorizatu behar dira
- Informazio kartelak jarri
- Komunikazio ona eta heziketa turistekin
  
- Arauak barruko eta kanpoko bisitariarentzat
- Informazio turistikorako zentru bat sortu
- Formakuntza jasotzaileentzat



- industria turistikorako araudia sortu
- agente turistikoen arteko sareak sortu
- teknologia berriak informazioa sustatzeko (geografia, ekonomia, ospakizunak, toki turistikoak, kultura, Timor Leste...)
- Formakuntza (turismoaren inguruko oinarritzko heziketa komunitateetan
  
- Eztabaida interkulturala, emakumeek planteatzen dute
- Ezagupenak konpartitu (aurreko dinamikan eskatu dute, turistak bere ezagutzak konpartitu ditzan eskatu zutenean)
- Ezin dugu turista gauza timortar tipikoak egitera (murtzikatzea)
- ez badute gure janaria jaten, errespetatu behar dugu (beraien aukera da)
- Ezin dugu sahiestu bikinia janzteia, bestela ez dira bueltatuko.
- Turistak erregeak dira, baina arauak ezagutu behar dituzte aurretik (gobernuak ezarri behar ditu)
- Adibidez: jatetxe batera banoa eta gustoko ez dudana janaria badago, aldatu diezadatela eskatzen dut, eta errespetatu behar da. Arau gehiago badaude, bete behar dira
- Aurretiko informazioa funtsezkoa da toki bakoitzean, beraien arauak eta informazio kartelak izan behar dituzte.
- Neurri batean tolerantzia dago (drogarik ez)
- Hainbat kultura daude eta ezagutu behar ditugu, bai eta beste ohiturak ere
- Aniztasunarekiko errespetua
- Pribatutasunaren errespetua
- Elkarrenganako errespetua !!!!!



Zein jarrera hartzen dugu gure kultura errespetatzen ez duen pertso-  
narekin?

- Zigorrak (gure legeetan dago ezarrita) DELITUA da!
- Delitua ez den beste portaera bat, ERRESPETUZ!!!
- Desberdintasuna kultura, tradizioa eta ohituraren artean
- Baliabide turistikoei buruzko aurretiko informazioa ministeritzen aldetik

Arazoen dinamikei erantzunez, tutuala eta maubarako arazo errealak,  
taldeka lan egiten erantzunak.

Ez dago garbiketa materialerik, eta zaramalekuak eta turistak zikinak dira

3.- Zuhaitz batekin erratz tradizional bat egin, zarama botatzeko ontzia banbuz egin, mural bat jarri eta basurero bat jarri, non zarama gehiago dagoen

1.- Taldeko nagusiaren ardura da eta bere kideak hobeto antolatu behar ditu.

Taldearen ekarpen boluntarioa.

Ez dago materialetarako garraiorik

3.- Kideek fondo bat jartzea dolarretan garraioa ordaintzeko zaldiz, bizikletaz, pertsona bakoitzak zama moduan eramatea caballo, bicicleta, cargarlo cada persona

1.- Gurdia, zaldi-kotxea, bufaloa, behiak

Ez dute hizkuntza ezagutzen

3.- Keinu-hizkuntza ikastaro labur bat egin behar da, hiztegia, pertsona itzultzailea

1.- Ikastaroa egitea komunitatean geratzeko konpromezuarekin

## 12 KARTELA

Ez dago ur gozorik, ezta urerako garraiorik





3.- Banbuaren bidez kanalizazioa edo bisiten aurretik uraren bila joatea laguntza eskatu gobernuari edo beste GK Eei kanalizatzeko

1.- Euri-urerako depositoa zuhaitzak landatu hezetasuna mantentzeko, ur edangarria komunitatearentzat gordetzeko ikastaroa egin

Kartel bat jarri kideentzat uraren erabilera egokirako irizpideekin.

Egurrarekin sukaldatzea zikina da janarirako, sua aireatzen denean

3.- briketak erabili, petroleo edo gasezko sua, janaria estali sukaldatzen denean.

1.- Biogas erreserba, eta teilatu irekiarekin eraikin kea atera dadin.

Ezagupen gutxi finantzak kudeatzeko

3.- Formakuntza berezia eta oinarrizko ezagupenak

1.- Erregistro liburua

Jantokiko teilatua apurtuta

3.- Elkarrekin konpondu

Beste etxe bat behar da zerbitzua bermatzeko

1.- Talde bat egon behar da etengabe zaintzen

Errendimendua ez da reinvertido, kideen artean banatu da

3.- Kideen artean fondo bat sortzea erabaki, araudia egon behar da po-tea ondo erabiltzeko.

1.- Araudi indartsua, potea ezin da ikutu.

Tokiko produktuak prezio altua du

emakumeen taldea: kooperatibak gehiago produzitu dezake, eta me-nuaren prezioa igo.

2.- tokiko produktoreekin akordio batera heldu prezioak erabakitzeko.

Produktoreek kooperatibara eraman ahal dituzte produktuak.

Emakumeak: motor bat erosi

Ez dute hizkuntzarik ezagutzen



Emakumeak: aktibitateetan parte hartuko duten pertsonen hizkuntzak irakastea

Garbiketa falta etengabea

2.- Garbiketarako formakuntza

Haburasekiko komunikazio falta

2.- Haburasekiko komunikazioa

Turistentzako garraiobide falta

2.- Paseoetarako tokiko baliabideak erabili: zaldiak, gurdiak,...

Fondo ez da aktibitate turistikoetarako erabili, baizik eta kideentzat.

Emakumeak: potea kontuz erabili behar da kooperatibaren onurarako

Erregistro liburua, diru sarrerak eta gastuak

2.- Heziketa eta formakuntza kontabilitatean eta finantzetan.

Ez dago hozkailurik

emakumeak: eros dezagun

2.- besteena erabil dezagun, kioskoarekin akordio bat ezarriz, hotza mantendu dezan, eta irabazi bat jaso dezan.

Errepide txarra, eta turista gutxi daugo

2.- Tokiko agintaritzak presionatu errepidea mantendu dezaten.

Emakumeak: guk konpondu behar dugu.

Josteko makina falta da.

Emakumeak: potearekin eros dezagun

2.- eskuz egin dezagun, gizonen eta emakumeen irakatsi

Sugerencia. Gaitasun guztien garapena

2.- proiektu turistikoak dituzten komunitateen arteko ikerketa konparatiboa

emakumeak: esperientziak eta trebetasunak konpartitu, eta arrakasta izan duten tokiak ezagutu.



### Azkeneko dinamika

(1.-zer daukatu,2.-zer behar dugu, eta 3.-nork egin dezake) hurrengo gaiak identifikatzen dira

### Inbertsioak

- 1.- etxea, potea, tokiko materialeak, egurra, banbua
- 2.- dirua, kreditua, finantzak kudeatzeko giza baliabideak, osoasunean formakuntza. Kontrolatuko duten pertsonak.
- 3.- guk geuk komunitateekin eta unibertsitateekin kooperatzea.

### Garraioa

- 1.- Motorra, bizikleta, eskuko gurdia edo zaldiz mugitua, ontzia
- 2.- Minubusa, gurdi txikia, kamioneta, ontzia
- 3.- Poteko dirua jartzea, kooperatibako kideen ekarpen boluntarioa, kreditua, gobernuari eskatzea, beste GKEei eta emaileei.

### Sustapena

- 1.- Irrati komunitarioa (etorkizunean), telebista, egunkariak, aldizkariak, interneta, telefonoa, Timor telecom gida turistiko bulegoa, turismo ministeritza, estatuko kooperatiba sekretaritza, muralak kaletik
- 2.- Informaziorako formakuntza (3 Haburas), dirua (3 gobernuari eskatu, kooperatibei, GKEei, eta beste emaileei), antolakuntza turistikoa indartu (3 Haburas eta gobernu), komunitateekin kolaborazio ona (3 kooperatiba), eta nazioarteko azoketan parte hartzea (3 gobernu eta GKEak).
- 3.- Unibertsitateak

### Formakuntza

- 1.- Turismo komunitariorako formakuntza zentru bat dago (2 pertsona), garraioa
- 2.- Turismo komunitarioaren kudeaketarako formakuntza, formazioa antolatzeke aitzindaria, turismo komunitarioan antolaketa ondo planifikatzeko pertsona, jabetzen gaineko ahalmena, eta hizkuntzak ikastea.
- 3.- Haburas, GKEak, unibertsitateak, unibertsitariak, UNTL. Gobernu, eta beste komunitateak.



### Salerosketa (hiru kooperatibetarako pentsatuta)

1.- Ostatuak, jatetxeak, kioskoak. Artisautza, arrantza, kultura berezia, nekazaritza, ur sakratua, Ramelau, Paicau, Jaco Uhartea, jendea, energia berrigarriak, telebista, hozkailua, tokiko produktuak, kafea, fruta, barazkiak, itsasoa.

2.- Gurdia, motorra, hozkailua. Azpiegitura berriztatu, informazio egituratua, untzia, ur edangarria, finantzetan eta hizkuntzetan trebakuntza, hesiak, eta errepideen konponketa.

3.- Taldeko kideak, gobernuari eta beste erakundeei





## BIBLIOGRAFIA

Agência Australiana de Desenvolvimento Internacional (AusAID), "East Timor":<http://www.ausaid.gov.au/country/country.cfm?CountryId=911>

Agência Australiana de Desenvolvimento Internacional- AusAID, Status of Women in East Timor",<http://www.youtube.com/watch?v=Zx7nFr2PO9E>

Agência Australiana de Desenvolvimento Internacional- AusAIDvideo. Status of women in Timor-Leste.<http://www.youtube.com/watch?v=Zx7nFr2PO9E>

Amnistía Internacional. "La mutilación genital femenina y los derechos humanos". Infibulación, excisión y otras prácticas cruentas de iniciación, Madrid, Ed. (EDAI), 1998.

BACK DOOR Newsletter on East Timor  
<http://members.pcug.org.au/~wildwood/01augwomen.htm>

Buades, Joan, Cañada, Ernest y Gascón, Jordi. El Turismo en el inicio del milenio: una lectura crítica a tres voces. Foro Turismo Responsable. Colección Thesis. 2012

Chomsky, Noam. Timor Oriental no es agua pasada.  
<http://www.inventati.org/ingobernables/textos/anarquistas/Chomsky%20-%20Timor%20Oriental%20no%20es%20agua%20pasada.htm>

CIA World Factbook, "Timor-Leste"  
<https://www.cia.gov/library/publications/the-world-factbook/geos/tt.html>

Crook, Matt. DERECHOS HUMANOS-TIMOR ORIENTAL: Las mujeres aprenden las cuerdas Políticos. IPS.<http://www.ipsnews.net/2009/07/rights-east-timor-women-learn-the-political-ropes/>

Danna, Daniela. Ginocidio. La Violenza control le donne nell'era globale. Eleuthera. 2007

Davis, Geraldine. Preliminary Plan for Community Base Ethical Tourism in Maubisse, Timor Leste. External Evaluation. 2012. ETDA (Tourism Resource Book). Dili, Timos Leste. 2012.



Instituto Português de Apoio ao Desenvolvimento (IPAD), "Ponto de Situação em Timor Leste," :[http://www.ipad.mne.gov.pt/index.php?option=com\\_content&task=view&id=91&Itemid=122](http://www.ipad.mne.gov.pt/index.php?option=com_content&task=view&id=91&Itemid=122)"

IPS. Mulheres ativistas no Timor Este, <http://eportuguese.blogspot.com.es/2011/07/forca-das-mulheres-de-timor-leste.html>

Lopes da Costa, Elisa. CIDAC / Lisboa. De Mãos Dadas para a Mudança <http://www.apagina.pt/?aba=7&cat=78&doc=7615&mid=2>

Molina, Estefanía y San Miguel, Nava (Coords.). Universidad, Género y Desarrollo. II Buenas prácticas en DD Humanos de las Mujeres. África y América Latina. Cuadernos Solidarios Nº 4. UAM. 2009.

Moreno Alarcón, Daniela y Lucy J. Ferguson. El turismo como oportunidad. Buenas prácticas en turismo sostenible con perspectivas de género. FIAPP. 2011.

Narciso, Vanda Margarida J. S. y Sousa Henriques, Pedro Damião de. As mulheres e a terra, uma leitura da situação em Timor-Leste, [http://tlstudies.org/pdfs/chp\\_15.pdf](http://tlstudies.org/pdfs/chp_15.pdf)

Narciso, Vanda Margarida J. S. y Sousa Henriques, Pedro Damião de. Desenvolvimento rural, mulheres e terra - um olhar sobre timor-leste. Universidade de Évora. <http://econpapers.repec.org/paper/agssbrfsr/108612.htm>

PeaceWomen.org, "East Timor: Women Learn the Political Ropes", [http://www.peacewomen.org/news\\_article.php?id=2075&type=news](http://www.peacewomen.org/news_article.php?id=2075&type=news)

Pires, Milena y Scott, Catherine . "East Timorese Women: The Feminine Face of Resistance", in East Timor Occupation and Resistance, Lisboa, 1998, pp. 141-152.

PNUD, "Mana Dulce: Spurring Change in Timor Leste", <http://www.beta.undp.org/undp/en/home/ourwork/capacitybuilding/successstories/story21.html>

Sepúlveda Carmona, Magdalena. Conselho dos Direitos Humanos. Missão a Timor-Leste. Relatório da Relatora Especial sobre pobreza extrema e direitos humanos, Vigésima sessão. <http://www.laohamutuk.org/econ/SRPoverty/HRC2025Add1Pt.pdf>



Stratégies pour l'élimination de la violence à l'égard des femmes dans la société: médias et autres moyens - 3e Conférence ministérielle européenne sur l'égalité entre les femmes et les hommes (Rome, 21-22 octobre 1993), Strasbourg, Conseil de l'Europe, 1993. Timor Link, London, nr. 36, July 1996.

Terra.com.br, "Dilma promete ajuda ao Timor-Leste na economia e democracia" :<http://noticias.terra.com.br/brasil/noticias/0,,OI4972260-EI7896,00->

[Dilma+promete+ajuda+ao+TimorLeste+na+economia+e+democracia.html](http://noticias.terra.com.br/brasil/noticias/0,,OI4972260-EI7896,00-Dilma+promete+ajuda+ao+TimorLeste+na+economia+e+democracia.html)

Tuvilla, José "Instrumentos Jurídicos Internacionales - Sobre los derechos de la mujer", in Desarrollo, Derechos Humanos y Conflictos - Observatorio de conflictos, Madrid, CIP, 1998, p 14.

Williams, Jemma-WNN Features. Becoming strong: The challenges facing women in Timor-Leste. <http://womennewsnetwork.net/2013/05/22/strong-women-timor-leste/>

Women Learn the Political Ropes, "TIMOR-LESTE: Rights-East Timor",[http://www.peacewomen.org/news\\_article.php?id=2075&type=news](http://www.peacewomen.org/news_article.php?id=2075&type=news)

Wunder, Sven. Ecoturismo, ingresos locales y Conservación. El caso de Cuyabeno, Ecuador. Unión Mundial por la Naturaleza-UICN. 1996.

[http://www.bantaba.ehu.es/obs/files/view/Gender\\_analysis\\_of\\_women%27s\\_political\\_participation.pdf?revision\\_id=79226&package\\_id=79202](http://www.bantaba.ehu.es/obs/files/view/Gender_analysis_of_women%27s_political_participation.pdf?revision_id=79226&package_id=79202)